

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Abenduak 14, 87. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



# Agudo, agudo!

## Mezulari berriak

APAINKETAK

OPARIAK

Zorionak bezero, ondo pasau Gabonak  
Zorionak laguna eta Urte Berri ona

OSAGARRIAK

ZUMITZA

*Zubi zaneta*



GALERIA 44

OPARI BEREZIAK



# Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahilituzke.

•1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoi heldu zaio.

•1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m<sup>2</sup> koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

**RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.**

**RONEO UCEM**

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

## Laguntzailea:

Arrasateko Udala

## Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

## Erredakzioa:

Beñardo Kortabarría. Arantzazu Loidi

## Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

## Maketazioa:

Goio Arana

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaráia, Iñaki Mendiguren

## Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea.

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

## Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

# Ekologia eta ekonomia, eskutik helduta ote?

**E**zetz esango nuke, orain arte behintzat, nahiz eta ekonomi garapenerako burutsu askok horrela adierazten diguten. Eta, egin esan, ez dute aditu horiek beste biderik, izan ere azkeneko urteotan ekologiak pairatutako degradapenak, tekniko horiek defendatzen duten ekonomi sisteman izan bait ditu bere arazoak, ezezkorrak, noski.

Merke da esatea, edozer ekonomi sistemak ingurugiroa kontuan izan behar duela; edota -Europako Ekonomi Elkartek dioen bezala- ingurugiroako neurri politikoak bateratu egin behar direla, barne-merkatuan oreka garantiatzeko. Bai; merke da esatea eta, zoritxarrez, garesti xamar teoriak eta hitz handitako proklamak praktikara eramatea. Ez ahaztu, bestalde, mundu-degradapena gogokoaren ondorio zuzena dela, eta izadia birziklatu asmoz ari direnek egiaztapen hori izan behar dute kontuan.

Ez dugu zalantzan ipini behar, ekologia eta ekonomia elkarrengandik gero eta urrunago garatu direla. Ekonomiaren gorantzeko joerak azpiratu egin du ingurugiroaren beharrezko galera-marra. Eta hori, mendebal makrobalantzeetan ez ezik, gutxieneko mailetara iristen ez diren ekialde eta, orohar, hirugarren munduko estatu-ekonomietan ere gertatzen da. Azken kasu horietan, gainera, ekologiaren degradapenak ez du barne diru-kutxetan kalteordainezko partidariak utzi.

Europa zaharretik ekologiari buruz sortzen ari diren teoriak norainoko balore izan dezaketen, munduko beste lurralde edo kontinenteetan aplikatzeko, guztiz eztabaidagarri den gaia dugu. Sendagailu berdinak erreakzio diferente eragin dezake, gaixotasun berberak jota dauden bi gorputzetan. Guri ongari gerta lebigukeena beste batzuei, ordea, kaltegarri.

Interesgarri iruditu zait -kultura apartako ikusmoldetik datorren arren- Indiako "Chipko" ekologi mugimendua munduan zehar barreatzen ari den diskurtsuaren mamia. Ekologia daukate ekonomia iraunkortzat. Eta haren hondamenak, edozer ekonomiak darabilen kapitalaren murrizketa adierazten du, hots, galera. Izadiak bizitzaren oinarrizko bitartekoak eskaintzen ditu, diote chipkozaleek, eta gaur egun irabazi azkarreko teoriak izadiaren beraren kontra jotzen du. "Har ezazu fruitua arbola mindu gabe" aldarrikatzen dute ekologizale indiarrek eta formula hori garantiza dezakeen sistema bakarra ondoko hau dela diote: oihan eta basoak, hurbilen dituzten giza-kolektiboek administratzea eta inolaz ere, zementozko hirietan burukamustuta diharduten gobernu eta erakunde asetezinek.

Pobreziaz gorrienean itoko ez bagara, ekologia eta ekonomia elkarren ondoan zuzendu beharko ditugu.

*Josemari Velez de Mendizabal*

*inpresio ona*



Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

inprimategi eta  
autoedizio  
zerbitzuak





**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**BERANGO**

Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atek

Legarreko pabiloi industrialak  
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE  
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



**BELUN**  
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

**"EDERTU"**  
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

**Lancaster-etik Arrasatera**

Kaixo Arrasate! Agur bat doakizu Estatu Batuetatik, Pennsylvaniako Lancaster hiritik, Esteban Umerezengandik. Nahiz eta jaioterritik milaka kilometrotara egon, astero jasotzen dut Arrasate Press aldizkaria, zугandik hurbilago senti arazten nauena. Beraz gutun hau, batez ere Arrasate Press-eko Zuzendaritzara zuzendua da, mesede handi hau eskertzen, aldizkarian aurkitzen dudan guztia oso mesedegarria da eta. Herrian zer berri den jakitea beharrezkoa bait zait. Benetan eskerrik asko.

EE.BB.-etan urtebeteko esperientzia oso polita da. Pentsamolde, jende, bizimodu berriak aurketzen dira, eta asko aberasten dute. Baina ez nintzateke hona bizitzera etorriko. Amerikarrak oso azkar bizi dira, presaka punta batetik bestera, etangabe erlojuari begira. Oso nekagarria da.

Baina ni bizi naizen lekua oso ederra da. Lancaster County herri txikiz osatua dago eta Lancaster Hiria du gune. Oso zabala eta laua da, ez du mendirik ia. Nekazaritzarako oso aproposa, beraz. Lancaster oso famatua da inguruetan hemen bizi den talde berezi batengatik: Amish dituriko taldea (inork "Unico testigo" filmea ikusi badu, entzuna du talde honetaz). Nekazariak dira, eta arau estu batzuen pean bizi dira: ez dute kotxerik, ezta argi elektrikorik ere. Gizon ezkonduak bizarra dute, eta emakumeek ilea telazko txapela antzeko batean daramate. Oso jende lagungarri eta interesgarria da, nahiz eta oso serioak izan.

Beno, beste batean kontatuko dut gauza gehiago guzti honi buruz. Berrito ere eskerrik asko Arrasate Press. Besarkada handi bat guztioi, batez ere nere familia eta lagunei: ama, aita, Xabi, Gaizka, Martin, Eider, Mirian, Jose Mari eta beste guztioi. Ez zaituztet ahaztuko. Hurrengo arte.

Esteban Umerez  
Lancaster PA, USA

**Jose Mari Velez eta Intxaurrek**


Azaroaren lehenengo astean argitaratutako Arrasate Pressen diozunez, aurtengoa ez omen da intxaur urtea. Ez dakigu hau baieztatzeko, aurtengo urtean intxaurren azpi askotan zirrika ibili zaren ala ez. Guk, berriz, esan diezazukegu aurtengoa urtea aberatsa izan dela eta intxaur asko egoteaz gain, sana dela aurtengo alea. Egia da ere, urte aberatsagoak egon izan direla eta zure Aramaio horretan badagoela 150 kilo batu zaion arbola bat, kontuan izan gabe bela lapurrek osten dizkietenak.

Hemen ez dagoela intxaur tentetik? Ez! Baina kostatu egingo zaizu pago, gaztain edo haritzenak ere ikustea eta horren arrazoia izan liteke lehenagoko ikazkinek erditik moztzen zituztela, gero erdi horri ateratzen zitzaizkion adar sendoak aprobetxatzeko. Horren bentaja? Berriz arbolarik landatu beharrik ez. Tentaiak bota ezkerro ikatza egiteko, gero landatu beharra dagoelako berri bat.

Zein izan den intxaurren etsaia? Eibarko eskopeta fabrika izan da izan ere. Intxaurren atera dakioken egurra izan da hiltzaile bihurtu zaiona. Duela sei urte, ondoan egotea tokatu zitzaidan Eibarko gizon batek sei mila hoguerleko eskaini eta etxe aurreko intxaurren erosi zionean, eskopeta kulatak egiteko asmoz.

Ehizari, aurretik zenbatuak zituenari, gehitu behar zaion beste krimen ekologiko bat.

O. S. I.





# Zer erizten diozu Eusakaldunon Egunkariari?



**Patxi Garai**  
(jubilatua)

Ikusi egin dut, baina oraindik ez dut hartu, baina hartu behar dut. Mutiko txikiak ginenean inork erdararik ez genekien, eta ez ziguten euskaraz hitz egiten uzten. Orain euskaraz ikasi behar.



**Charo Navero**  
(etxeoandrea)

Ez dut ikusi ere egin, baina ulertzen duenarentzat egotea ondo iruditzen zait.



**Bego Arregi**  
(andereñoa)

Bat bakarrik irakurri dut, eta azaletik gainera, horregatik ezin dut kriterio gehiegirik izan. Hala ere ondo iruditzen zait, guztia euskeraz irakurtzeko.





**Fernando Ruiz**  
(jubilatua)

Ikusi dut, baina ez dut ezer irakurri. Bidezkoa iruditzen zait egotea.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

ARRASATE - ESKORATZA

# KOPIOTXOA

*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak*

*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

# Memesa

## 79 42 22

# NAROKI

901 MAILAKO  
BITXITEGIA

Erdiko Kale, 23. Tel.- 792047 ARRASATE

ERLOJUTEGIA





**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziazak .....	45 87 44
--------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
--	----------



**14 OSTIRALA**

• • •

- Zinea: Alai. "Ghost", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Pretty Woman", 10.30etan.
- Kantaldia Amaian, Pantxoa eta Peio, eta Gontzal Mendibilekin. gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

**15 LARUNBATA**

• • •

- Zinea: Alai. "Ghost", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Pretty Woman", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Udaletxearen inaugurazio ofiziala, eguandiko ordu-batean. Probintzia eta herriko agintariekin.
- Kontzertua San Frantzisko Elizan "Hodeiertz" abesbatzaren eskutik. arratsaldeko 8etan.
- Rock kontzertua kiroldedean, *Sociedad Alcoholic*, *Baldin Bada* eta *Delirium Tremens* taldeekin.

- Gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

**16 IGANDEA**

• • •

- Zinea: Alai. "Ghost", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Pretty Woman", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Trikitilariak herriko plazan Tapia eta Leturia trikitilarien emanaldia. Arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina.

**17 ASTELEHENA**

• • •

- Zinea: Alai. "Ghost", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Pretty Woman", 7.30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

**18 ASTEARTEA**

• • •

- Zinea: Alai. "Ghost", 7 eta 9.30etan.

- Hitzaldia Monterronen "Drograren trafikoaz", Askagintzak antolatuturik. Arratsaldeko 7etan.
- Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatutako enkartelamendua Portaloian. Arratsaldeko 7etan
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, Santa Marina.

**19 ASTEAZKENA**

• • •

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

**20 OSTEAGUNA**

• • •

- Zinea: Alai. "Yo soy esa", 7 eta 9.30etan.
- Zine-kluba: arratsaldeko 8.30etan Amaia antzokian, "La lectora", filmaren emanaldia.
- "Haltzak badu bihotzik" I. Mendigurenen liburua en aurkezpena Monterronen 7.00etan. Hizlariak X. Mendiguren eta Nekane S. Migel.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

**Kirol Agenda**

**MENDI IRTEERA**

• • •

- Besaide, mendizale elkarteak antolatuturik, Balerdira mendi irteera.

**FUTBOLA**

• • •

- Igandean Mondra-Elgoibar, Atxabalpeko futbol zelaian, arratsaldeko 3.30etan. Klub-aren eguna.

**FUTBITOIA**

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne 30 partidu ostiraletik igandera bitartean.

**PILOTA**

• • •


- Larunbatean, goizeko 10.30etan, klub-en arteko txapelketaren barne, Arrasate eta Aretxabaletaren arteko partiduak, Musakolan. Igandean, goizeko 10.30etan, Santo Tomas torneoko finalak Iturripeko frontoian.



## Liburuak

### • Gabon kanta bat.

Azkenean euskaraz dator kigu Europa eta Iparrameriketara zehar Gabonetako klasikoa bihurtu den obra. 1843an Charles Dickensek (besteak beste Oliver Twist eta Daoid Copperfield-en idazlea) argitaratu zuenetik, milaka aldiz antzestu da hizkuntza mordotan.




Gabon giroan, zikoizteria eta emankortasunaren aldeko bidea egingo du Scrooge zekena, hiru mamuren laguntzaz. Itzulpena, ederra, Xabier Mendigurenek egin du. Erein argitaletxeak argitara emana, 132 orr.

## Bilera

### • Ikastolako Batzar Nagusia

Arrasateko San Frantzisko Xabier Ikastolak Batzar Nagusi Arrunt eta Berezirako deia luzatu die bere bazkide guztiei, datorren osteguna, abenduak 20rako. Aztertuko diren gaien artean 89-90 ikasturteko txosten ekonomikoa onartzea, ikasturte honetako Gestio Planaren azterketa egitea aipatu behar.

Batzar Berezian, berriz, Batzorde Zuzentzailerako ordezkari berriak aukeratuko dira. Bilera Gazteluondoko batzar



## Kontzertua

### Hodeiertz abesbatza

Bihar, arratsaldeko zortziretatik aurrera, Tolosako "Hodeiertz" abesbatzak, Enrike Azurzaren zuzendaritzapean, kontzertua eskainiko du San Frantzisko Elizan. Kontzertua bi zatitan banatuko da, lehenean batez ere meza kantuen inguruko errezitaldia emango dute, eta bigarrenean bereziki euskal kantak eta gabon kantak eskainiko dituzte.

Ahots nahasitako "Hodeiertz" abesbatza. 1983an sortu zen, eta ordufik Estatu guztiak kontzertu ugari eskaintzeaz gain, atzerrian ere egona da. 40 pertsonak osatzen dute tolosar abesbatza, eta ia, hain zuzen Tolosan burututako jaialdian, Europako abesbatzen artean A maila lortu zuen. Helduen abesbatzari fama emateaz gain, tolosarrek, etorkizunari begira ere, ardua erakutsi dute, eta 1987. urteik 60 urteaz osatutako "Hodeiertz-ixiki" abesbatzak ere makina bat ekitalditan parte hartu du.

areto berrian egingo da, arratsaldeko 6etan.

## Erakusketak

### • Gimnasia erritmikoa

Arrasateko Gimnasia erritmiko taldeak antolaturik, Gimnasia erritmikako esibizioa izango da Musakolako Kiroldegian. Konpetizio mailan sartuta dabiltzan 50 neskatila etorriko dira, Leioa, Gasteiz, Bergara eta Eibarko taldeetako ordezkarien artean. Goizeko 11.30etan hasiko den erakusketaren helburua, Arrasaten kirol honenganako zaletasuna handitzea

da, eta aldi berean dagoeneko Arrasateko taldean dauden neskatilari kanpoan egiten denaren berri ematea.

### • Artesaua

Gorriti Artesauaren lanen erakusketa izango da Monterronen abenduaren 15etik 25era bitartean, Monterronen.

## Abaroa

• Egiababal margolari elorriotarraren lanen erakusketaz gain, Jubilatuen artean antolatu den Kata Joku torneoaren finalak izango dira abenduaren 19 eta 20an.

Hitzaldia:3. adineko elikadura eta nutrizioa. 19an.

## Liburutegia

### • Monterron Liburutegia.

Urriko liburu berriak (Literatura).

Marse, Juan: El amante bilingue (nobela). 1990eko Sevillako Ateneo Saria.

Ugalde, Martin: Itzulera baten historia. 1990eko "Jon Mirande" Nobela Saria.

Atxaga, Bernardo: Poemas & híbridos.

Oteiza, Jorge: Existe Dios al noroeste (poesia).

Aristi, Pako: Krisalida. Tempo de tempo. (nobela).

Faulkner, William: La mansión. (nobela).

Hollinghurst, Alan: La biblioteca de la piscina. (nobela).

Ford, Richard: El periodista deportivo (nobela).

Antolín Rato, Mariano: Abril blues. (nobela).

Sarduy, Severo; Cocuyo (nobela).

Paz, Octavio: La otra voz. Poesía y fin de sigl.o (saioa). 1990eko Literatur Nobel Saria.

Sciascia, Leonardo: Una historia sencilla. (nobela)

## Hitzarmena

Datorren asteazkenean, hilak 19, Monterronen, eguerdian, Mondragoeko 20 erakunde (lehen 38 izan ziren) euskara bultzatzeko martxoan egin zen Hitzarmena sinatuko dute, E. Jaurilaritza, Euskaltzaindia eta Arrasateko agintarien aurrean.

## Hitzaldia

Askapenak antolaturik, Palestinen egoera gaiari buruzko hitzaldia emango du Miguel Dibsyk, OLPko ordezkariak. Monterronenlarunbata hilak 15, eguerdiko 12.30etan



“ Arrasaten Gaztetxea ere bazuten, lehengo zine zaharra, baina kontua gainbehera joan zen. La Pollaren kontzertu batean txapatu egin zuten, eta ez dago berriz irekitzeko itxurarik. Hemen talde mota ugari daude: pop, heavy, punka... baina irteera gutxi dago. (...) Gitarra arpegiatuak, punteodunak edo rasgatzeak, kolpez jositako ahotsa -edozein modutan ere soinu sudurkarietara hurbilduaz, Hertzainetako Gary gogora araziaz-, eta xumetasunez transportatutako erritmo batzuk, horietan izan daitezke SS-77ren oinarria. Estribilo edo leloetan komertzial samar ageri dira, musikalean indartsu, nahiz eta zuzeneko saioetako gogortasuna eta oldarkortasuna neurri batean galdu”.

(El Tubo aldizkaria)

“ (Axularren) gurasoek ondasuntxoak bazituzten, nonbait, eta Salamancara bidali ahal izan zuten estudiantzera. Han, besteak beste, Francisco Zumel merzedari ospetsuaren ikasle eta entzule izan zen. Garai hartako beste irakasle sonatu bat Domingo Bañez izan zen, Arrasateko semea, eta haren ikasle ere izan zen”.

(Yon Etxaide idazleak "Hamasei seme Euskalerriko" liburuan)

“ Zentzu honetan, (...) Egunkariaren sorrerak ez du perspektiba galduarazi behar, zeren egunerokoak esanahi eta balio (akuilu ere bai, seguruenik) ematen bait die xumeagoko hauei: Argia, Herria, Aizu, Ttipi-Ttapa, Ene Bada, Arrasate Press, Deiadar, Goierriarra, Aretxagazeta...”

(J. M. Zalakainek Euskaldunon Egunkarian)

Zer garrantzi dauka mimoak, eta orohar antzerkiak, umearen hezkuntzan?

Garrantzi handia dauka. Mimoan eta antzerkian, sarritan haurrak eduki dezakeen nortasuna islada daiteke, horregatik garrantzi handia ematen diot umeak antzerkia ikusteari. Dena dela, mimoa edo antzerkia ikusteari baino, garrantzi handiagoa ematen diot egiteari, umearen izaerarako oso baliagarri izan daitekeelako.


Hala ere, egiterik ez dagoenean, antzerkia ikustea behintzat oso inportantea da haurarentzat, batez ere antzerkia oso eremu zabala delako, umearen munduarekin zer ikusi handia daukan eremua, hain zuzen ere. Horregatik balio handia ematen diet antzerki-eskola aste han bezalako ekitaldiei.

Antzerki mundu zabal horren barruan, pantomima edo mimoa koka dezakegu. Niretzat aberasgarriagoa da mimoa egitea, nahiz eta antzerkia ere egiten dudana, baina mimoaren helburua hitzik gabe zerbait adieraztea da eta zentzu horretan umearen munduarekin errazago lotu daiteke, gorputz espresioa hitzarena baino atseginago delako. Argi dago mimoa atseginagoa izan dadin, ondo eginda eta prestatuta egon behar dela, nork, non, eta noiz egiten den garrantzi izugarria duelarik. Mimoa gaizki eginda badago, iragarri nahi den mezua ikuslearengana ez iristeko arriskua dauka. Halakorik gerta ez dadin, oso ondo prestatuta egon behar da, gidoi ulergarria izateaz gain, ondo burututakoa, eta antzezten baino, normalean, denbora luzeago ematen da prestaketetan.

Peter Roberts, Mimolaria.




FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOBBA  
Auto-Eskola

Zarugalde 46,  
79 14 01

ARRASATE

ORTZI  
erretegia

Angiozar auzoa  
Tfnoa: 76 22 68 BERGARA



## Antzuola

Hemendik urtarrilaren Sera arte, Antzuolako kultur taldeek jai giroan oinarritutako kultur egitaraua prestatu dute. Kultur egitarau horri hasiera emateko, bihar bertan, herriko zinetokian eta arratsaldeko 8etan "Goiar-gi" abesbatzaren emanaldia izango da. Hilaren 21ean, Santo Tomas eguna ospatuz, azoka eta txistorrada burutuko dira, 22an Euskal Li-



## Bergara

Bergarako Udaleko Gizarte Ongizateko Batzordea gurasoentzako eskola sortzekotan da, umeen hezkuntzarekin zer ikusia duten gaiak argitzen saiatuko den eskola. Eskola hau sortzeko lehen urratsak emanda daude, 88-89 ikasturtean 24 gurasoz osaturiko taldea lanean hasi bait zen. Gurasoentzako eskola, lehen esperientzia horretan oinarrituta sortu nahi da, eta interesa daukaten guztiek abenduaren 18a baino lehen Udaletxean izena eman beharko dute.

Gurasoen eskolari dagokiona alde batera utzi, eta jubilatuen asteko ekintzen berri eman behar, igandean hasi eta ostiralera arte makina bat ekintza burutuko bait dira Mizpirualdeko Egoitzan: antzezlanak, ikastetxeetako haurrek eginiko lanen eskaintza, Musika Eskolako taldeen ekitaldiak, dantzaldiak, bazkaria, jokoak, eta txokolatada besteak beste. Ondo pasa!

tzeko, umeentzako merienda, guztia pilotalekuan. Bertsolariak izango dira kultur egitarauaren barruan urte berriaren protagonista, errege

bezperan, Iñaki Murua, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Jon Sarasuak saioa burutuko bait dute zinetokian gaueko 10etatik aurrera.

## Aretxabaleta-Eskoriatza



Aretxabaleta eta Eskoriatzako Udalak Drogaren arazoari aurre egiteko bideak bilatu asmoz egoera ezagutzeko egiten ari diren inkestak aurrera darrai. Herri bietako gazteen artean banatu diren inkestek, 289 erantzun jaso dute dagoeneko Aretxabaletan, bilketa epea bukatu delarik. Orain, datu horietatik diagnostikoa ateratzea falta da. Azterketa amaitu aurretik esan daiteke, hala ere, kasurik gehienetan tabakoa eta alkohola aipatu direla gehien kontsumitzen diren drogen artean. Gizakia Helburu programan sei atxabaltar daude sartuta.

Eskoriatzan, 63 erantzun jaso dute oraindik bidalitako inkestek, baina oraindik ez da epea itxi. Bi Udal horietako drogomenpekotasun teknikaria astelehen, ostegun eta ostiraletan egoten da Aretxabaletako Udaletxean, jendeari erantzuteko, eta Eskoriatzan, berriz, astearte eta asteazkenetan, Kultur Etxean.



buru eta Diskoen Azoka egingo direlarik herriko plaza. 24ean berriz, Olentzero eguna denez, umeak goizez eta helduak arratsaldez, kantuan arituko dira. Hilaren 29an, arratsaldeko 4etatik aurrera umeek egindako komikiekien erakusketa ikusi ahal izango da, ondoren pailazoaren ekitaldia, eta buka-

## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

## E · S · T · U · D · I · O I N T E R I O R I S M O A

- Proiektuak
- Diseinuak
- Obra-Zuzendaritza
- Berrikuntzak
- Erakuskion eraketa (Eskaparatismoa)
- Anagramak

Garibal 3 bis,  
Tfnoa: 77 01 44  
ARRASATE



**Inkesta**

Arrasateko Udala, 16 eta 30 urte bitarteko gazteen artean zentzu azterlana egiten ari da, helburu bikoitzarekin egin ere. Alde batetik, gazteen kualifikazio maila, lan egoera eta prestakuntzarako dauden programetarako partaidetzarako interesa ezagutzea. Beste aldetik, helburu hori lortu eta gero prestakuntza eta lanbide orientabideko plangintzetan urrats berriak eman ahal izatea.

Horretarako, inkesta bana bidali behar dute adin horretako gazteak bizi diren etxeetara, gazteei buruzko datuak biltzeko asmoz. Etxean inkesta jasotzen duten gazteei parte hartzea eskatzen zaie eta lehenbailehen bidal dezatela erantzuna Udaletxera.

**Kanposantua**

San Kristobalen kanposantu berria egiteko dagoen proiektua jendaurrean erakutsiko den maketa prestatzen ari dira Udalean. Proiektua aurrera atera aurretik, hala ere, hainbat gauza daude eztabaidatu eta konpondu beharrean, hala nola ixten diren panteoien jabeek berria erosi egin beharko duten ala horretarako permutaren bidea erabiliko den, panteoiek ezaugarriak izango dituzten edo ez, saldu ahal izango diren ala ez, eraikuntza egiteko zenbat denbora beharko den eta zer epe jarriko zaion. Guztira 420 milioi inguruko aurrekontua duen egitasmo hori beste hiru bat aldiz aztertu beharko da, ezer onartzerako.

**Aurrekontuak**

Arrasateko Udalak aurtengo urterako esleituak zituen aurrekontuak zer egoeratan dauden aztertu berri da Udalean, eta horren arabera, urriaren 31n pentsatutakoaren %82a adjudikatuta zegoela ikusi da, eta urtearen amaierarako %100a betetzea espero da.

# Txandaka

## EMAKUME ABOKATUON IV. IHARDUNALDIAK

abenduarren 6-7-8an eta Toledon, Estatu Espainiarreko Emakume Abokatuon IV ihardunaldiak egin ziren.

Ihardunaldi bakoitzean gai bat hartzen dugu nagusi eta aurrean, ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteen arazoez, legediari buruzkoak edo eta legeak jartzen dizkien arazoez mintzatu ginen.

Badakithau irakurterakoan zera pentsatuko duela askok eta askok: paperak egin gabe bizitzea erabaki badute, zertara zatozte abokatuok dena nahastera? Kontua oso beste da: heuren artean aukeratzeko dituzten harremanekin, ezin dugu, sartu, baina bikotetik kanpo eta batez ere, bat falta denean sortzen diren egoera larri eta tamalgarriei soluziobide bat proposatu nahian ari izan ginen.

Guzti hau, beste soluziobide edo helburu nagusia ahaztu gabe: pertsona bakoitzak, berez eta zeinek bizi den, edo ezkondu dagoen edo... kontuan hartu gabe, eduki eta izan beharko lituzkeela eskubide guzti eta osoak. Baina bitartean... bitartean eta dauden legeak gehiegi aldatu gabe (pixkat bat, alegia) ezkondu gabe bizi direnei eta hirugarren pertsona edo instituzioei begira, bat falta denean aurrera jarraitzeko oinarri tiki batzuei eutsi beharko lieke: etxeko maizterza hildakoaren izenean badago?...oraingo legearen arabera bizirik gelditzen denak ez du nagusiaren aurrean eskubiderik. Edo eta, alde egiten badu, eta zu bizpahiru umeren arduraz gelditu eta ezkondu gabe zaudela eta... Edo maizterza izan gabe, zenbat eta zenbat kasutan ez da etortzen hil denaren aita, edo zurea ez den semea eta zu hogeitaz, berrogei urtetan bizi izan zaren etxetik kanpora bota? zuk hautsi dituzun arauak muturretatik pasatuz?... Hala jarraitzen badugu, abar luze bat eginen litzaiguke, eta abar luze hori landu eta jorratu nahian aritu ginen ehun eta berrogei ta hamar inguru emakume.

Edo eta, testamentua egin eta zurekin bizitzea bizi izan duen horri zure ondasun apurrak



**Nekane San Migel (\*)**

uztea erabakitzen baduzu, ezkondu gabe zaudetela eta Haziendak ia %70a kentzen dizu lurralde batzuetan ("Ezkon paperak" egin gabe arrotz tzat tratatzen bait zaitu Haziendak) eta ezkon paperok eginda badaude, %6a?, Bene benetan, une honetan ezkondu gabe elkarrekin bizitzea biziki zigorturik dago gure legedia honetan.

Dena den, eta azkenengo urteotan aurrerapen pittin bat ikusi nahian bagenbiltzan,

pikutara joan zaigu poza, Epaitegi konstituzionalak aurtengo azaroaren hemeretzi eman zuen epaiaz: egunkari eta aldirietan azaldu zen baina gogora dekarikizuet istorioa: Berrogeitaka urteetan elkarrekin bizi ondoren, "paperik" gabe alargun gelditu denari ukatu egin dio alarguntza pentsioa, nahi izan bazuen, dibortzioa legeztatu ondoren ezkondu besterik ez zutelako. Benetan lotsagarria, han bildurik geunden guztion gaitzespen tinkoena merezi izan zuen. Dena den, Epaitegi horretako epailari batek kontrako botua azaldu zuen baina hala ere, hemendik aurrera eta alditxo batean, ezkondu gabe bat hiltzen denean, besteak etxetik kanpo lanik ez badu egin, Karitas edo gizarte soldata edo .... jaso beharko du, Estatuak bizirik gelditu denaren laguntzaz hildakoak eginiko kotizazio guztiak majo irensten dituen bitartean....

Hala jarrai genezake han eztabaidatu ziren hamaika puntu, komunikadu, gaitzespen eta onespenak agertzen, baina zortzi orduko hiru egunetako lana ganoraz laburtzeko lekuri ez zait gelditzen eta behar bada, hurrengo batean gai honi buruzko puntu zehatz bat azaltzea merezi izanen du.

Arrasateetik bi, Gipuzkoako bost eta Euskaditik hamazortzi emakume abokatu aurrerantzean berdintasunaren alde lan egiteko asmo eta indar berriez bueltatu ginen gure lurralde hotz honetara.

(\*) Abokatu



### ARRASATEKO UDALAK

**2 ADMINISTRARI LAGUNTAILE** kontratatu nahi ditu 6 hilabeteko epe baterako.

Interesatuak abenduaren 20an, osteguna, goizeko 10etan Monterron Jauregian aurkeztu behar dira (idazmakinez) hautatze-azterketa egiteko.





Arrasate Musikalek 495 ikasle ditu aurten

## Arrasate Musikalen aldaketa

### Hiru hilabetean ofizialtasuna eta kuotak aztergai

Arrasate Musikalen 90-91 ikasturteko Gestio Planaren azteketa aurkeztu eta onartu egin da aste honetako Gobernu Batzordean. Gestio Plan hori pasa den irailaren 1etik datorren abuztuaren 31ra artekoa da, eta datorren hilean izango den batzar orokorrean aztertuko dira

Jakinekua da Arrasate Musikal erakunde pribatu bezala ibili izan dela orain artekoan, eta Udalak hiru urtetarako duela dirulaguntzak emateko konpromezua. Beste aldetik, errekonozimendudun Zentru Ofiziala da Arrasateko akademia, Donostiako kontserbategiaren menpe dagoena, alegia. Hiru hilabeteko epean etORKizunean zer burubide hartuko duen erabakitzeke proposamena landu beharko dute Juntaok. Hemendik martxora erabaki beharko da, bestalde, ikasleek ordaintzen dituzten kuotak jaisterik izango den ala ez, besterik esan arren, oraindik ez bait da jaitsierarik izan.

Berrikuntzen artean, gainera, laster izan daiteke egoitzaren aldaketa ere, orain Zerrajerak utzitakoak, txiki ez badira ere nahiko egoera kaskarrean daude eta, Arrasate Musikaleko Gerenteak, Jose Antonio Muruamendiarezek esan duenez. Proiektua egina dago San Frantzisko alboan dagoen Ospitale Zaharrean Arrasate Musikal kokatzeko, eta berrikuntza handiak egin beharko lirake, bi solairuetan.

Gogora dezagun gaur egun Arrasate Musikalen indarrean dauden kuotak 87an ezarri zirenak berak dira, eta besterik esan bada ere, ematen den asignatura kopurua ez da gutxitu. Matrikulari dagokionez, berriz, akademiak 822 matrikula egin ditu aurten, 495 ikasle guztira. Irakaslekoa 12 irakasle finkok eta 21 ordukakok osatzen dute aurtengo ikasturtean. Beste hainbat eredu aztertu ondoren, ikastolako konbenioa onartu da langile horientzat.

## Usteak uste

**E**kaitzak ustekabeen harrapatu gaitu. Azken hiru urteei kaso eginez gero, bazirudien neguak iraganeko oroimenak zirela. Aurten, ostera, eta iragarri den arren, bat ere prestatu barik geunden elurak iritsi orduko. Eskerrak elurjasa ez dela oso handia izan gure artean behintzat, akabo bestela.

Prestakuntza eta malgutasun falta dira nagusi horrelakoak gertatzen direnean. Milaka eta milaka pertsona izan daitezke errepideetan ez aurrera eta ez atzera egin ezinik dabiltzanak, eta elurra kentzeko makinak agertu ez, ertzainak despistatuta, ez dezagun ezer esan goardia zibilei buruz, babesgo zibila non dagoen aztarrenik ere ez, eta irrati asko ohizko programazioarekin jo eta ke.

Horrelako egunetan irratia izan ohi da azkarrena eta egokiena entzuleen jakin nahia asetzeko. Deba Garaian zoritxarrez ez dugu irratirik eta gure errepideei beste irratietan ematen dieten tratamendua ia hutsa da. Horren falta sentituko egun hauetan auto gidariei, inguruetako gainen egoera zehatza, mendi eta eskizaleei Urbia, Degurixa, Bedoña eta Udala bezalako tokien eogera ibili eta eskiatzeko, eta beste hainbat gauzaren berri emango ligukeen emisoraren falta hain zuzen.

Joxe Aranzabal

## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,  
Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



## LEKIN

Ileapaindegi mistoa

Erguin 15 etxebehea,  
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



# AEDren lehiaketako sarituak

*Ipuin, poesia, bertsoak eta itzulpena*

AEDk urtero antolatzen dituen literatur sariak badute dagoeneko sariturik. Bakoitzari zenbatgarren saria emango zaion, saribanaketa egunean, *abenduaren 21ean, arratsaldeko 7etan Monterronen* emango da jakitera. Sailez sail, eta adinaren arabera maila ezberdinetan banaturik, honako hauek dira sariren bat jaso dutenak:

### Ipuinak

Helduetan: Mari Karmen Abasolo, Jon Andueza eta Juan Luis Lopea.

Ertainetan: (14-18): Enara Ruiz de Eguino, Alaitz Arroiabe, Izaskun Ezpeleta eta Inazio Iturbe.

### Gaztetxoetan:

Igor Biritxinaga eta Oier Sarasua, Eider Zumalde eta Maia Unzueta.

### Poesia

Helduetan: Martxel Mariskal.

Ertainetan: Itziar Bartolome eta Itxaro Ormaetxea.

### Gaztetxoak:

Lorea Zabala eta Igor Biritxinaga-Oier Sarasua.

### Bertsoak

Helduetan: Patxi Goikolea eta Rikardo Gonzalez de Durana.

Ertainak: Agurtzane Iñurrategi, Leire Urzelai eta Arantzazu Fdez. Arroiabe.



Gaztetxoak: Maider Osa, Miren Oianguren eta Oihana Garmendia.

### Komikia

Mario Egues eta Karmelo Oñate.

### Argazkia

Roberto Mendi eta Jon Salaberri eta Juan Antonio Uriarte.

### Bideoa

Roberto Mendi eta Iñaki Lasantarena.

### Jokin Zaitegi Itzulpen Sariaketa

Iñaki Iñurrieta eta Usoa Larramendiren itzulpenak.

### Inaugurazioa

Arrasateko Udaletxe zahar berriak uztailetik irekita dagoen arren, asteburu honetan izango du inaugurazio ofiziala. Igande eguerdian hasiko dira ekintzak, eta oraingo gorporazioarekin batera, aurreko gorporazioko kideak, alkate ohiak, Diputatau Nagusia eta Hirigintza eta Udal Harremanetarako Diputatuak eta Deba Garaiko Udal Elkarteko Gobernu Batzordekideak ere izango

### Jostailuak

Aste bukaera honetan Kontsumitzaileen Informaziorako Udal-Bulegoak eta Udal Ludotekak, "Jostailu"ei buruzko liburuskak banatzeko asmoa daukate. Gabon egunetan umeentzat jostailu ugari erosten direla eta, banatuko den liburuska honekin edozer aukeratu baino lehen laguntza bat eskaini nahi da.

### JAIOTZAK

Ugartetxea Kortabarría, *Jokin*, abenduaren 1ean.  
Prat Bera, *Gorka*, 2an.  
Uribesalgo Urzelai, *Eñaut*, 3an.  
Bidaburu Aranzabal, *Eider*, 6an.  
Etxezarreta Conde, *Nerea*, 6an.  
Contreras Garcia, *Yanire*, 6an.  
Olaetxea Aranzeta, *Jone*, 8an.  
Alberdi Igartua, *Beñai*, 8an.


### EZKONTZAK

Eusebio Errasti & Maria Aranzazu Rosario  
*Ortiz de Guzman*, abenduaren 1ean. Elizaz.

**Mendi, eskalada  
eta kirol gaiak**



**ABENTURARAKO KATU OINAK**



**katu oinak**

Loramendi 8, Tfnoa: 77 02 69 ARETXABALETA



# SASKI NASKI

Lehiaketa

1990


## OKENDO KIROLAK



Zatoz gurera  ikustera.  
Banatzaile ofiziala

## Jose Aranzabal

TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK




**ASTE HONETAKO IRABAZLEAK**

- ▲ AITOR CORRAL
- ▲ ENKO BERBERENA
- ▲ ESTHER MANZANO

## J. URIARTE

**T A**  
**M PA A**  
**Y EL O**



**ZE EGUN DA ABENDUAREN 28a?**

ASTE HONETAKO GAZTEREN

SASKI NASKI ZOZKETAKo opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.

**ERANTZUNA:** .....

Izena: ..... Helbidea: ..... Tfnoa: .....



## SS-77k diskoa

SS-77 talde arrasatearrak bere lehen diskoa kaleratu berri du, *Julio Kageta, Pottoka eta Kiowa* taldeekin batera eta *Oihuka* diskoetxearen eskutik.

SS-77koen ustez, diska polita eta entzungarria da kaleratu berri hori eta arrakasta dezentea izan du jendearen aurretik ere. Aspaldian lokal barik geratuta eta entseiatzeko modurik gabe bazueden ere, obratan hasiak dira Iturripe aldean, eta datorren hilean berriz ere entseiekin gogor ekin, udaberrirako kontzertueri berriz ekiteko.

Talde arrasatearra gustora dago kritikak disk honen inguruan idatzitakoarekin, eta promozioa bezala, harrera ere ona izan da.



Peter Roberts-ek astelehen eta astearte

## Antzerki astea Arrasaten

*Amaian eta ikastetxeetan hainbat obra antzertu*

Aste guztian zehar, Udalak antolatutako Eskola Antzerki Astea burutu da Arrasateko ikastetxeetan eta Amaian antzokian. Peter Roberts-en "Azti mutila", Bihar antzerki taldearen "Fantasia puzzlea" eta "Lantzeko bandoleroa", Kukubiltxoren "Orreaga", eta Txo-txongilo antzerki taldearen "Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamia", izan dira Arrasateko umeez ikusi ahal izan dituzten antzezlanak.

Esan bezala, antzezlan horiek Amaian antzokian eta ikastetxeetan egin dira,

inolako leku arazorik izan ez delarik, ikastetxe bakoitzari ordutegi desberdina eman bait zaio. Hasieran ikastetxe bakoitzak antzerki lan bat egitekotan bazen ere, azkenean asmo hori ez da gauzatu, baina baliteke aurrerago horrelakoren bat egitea. Aurrekoa ikustear badago ere, beste asmo baten berri eman beharra ere badago, umeei antzerkiari buruzko ikastaroa ematekoa. Lau egunetan burutu den Eskola Antzerki Astearen helburua, umeen artean antzerkiarekiko zaletasuna sortzea izan da

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

**URONDO**  
elektrizitatea



- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

**VE ECUADOR**

Kontzezino 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**L ARRANGAN**  
auto gidarien eskola  
**KLASE TEORIKOA**  
**IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE





Jon Andsueza eta Edurne Arenaza

## Berrigara, gaurtik kalean

### Doaneko herri aldizkari berria Bergaran

Herri aldizkariaren artean, *Berrigara* atsekaria kaleratu da gaur Bergaran, Bergaran euskararen erabilpena bultzatzeko sortu zen *Jardun* taldearen bultzadarekin. Hasieran 16 orrialde izango dira argitaratutakoak, asteko berri, herriko ospakizun, kirol, bertako kontuak, antzinako gertaerak, eta antzeko sail asko izango dira irakurgai.

Autoedizio sistema erabiliaz, Jon Andueza kazetariak eta Edurne Arenaza publizitate arduradunak egingo dira aldizkariaren kargu, *Jardun* taldeko ordezkari den Miguel Angel Elkorobe-

rezibar zuzendariaren ardurapean. *Berrigararen* hasierako 2.000 aleak, Zubillagako Gertun inprimatu ondoren, etxez-etxe, taberna eta dendetan banatuko dituzte, doan. Aldizkariaren asmoa Bergaran euskararen erabilpena bultzatzea denez, *Jarduneko* bazkideen artean banatuko da, lehenik eta behin, eta harpidetza sistemaren bidez, eskatzen duten guztien artean.

Ekimen guzti honek Bergarako Udalaren bultzada izan du, oraingoz milioi eta erdiko dirulaguntza jaso duelarik.

## Soinu Txapelketa

Iñaki Alberdi, Iñigo Azpiolea eta Iñaso Berra irundarrak izan ziren txapeidun, heldu, gazte eta umeen mailan hurrenez hurren, asteburu honetan Arrasaten izan den soinu txapelketan. Egun ezberdinetan kanporaketak izan ziren Batxilergo Institutuan eta amaierako jaialdian zeukaten onena eskaini zuten maila bakoitzean garaile irrendakoez eta beste batzuk. Amaia bete-betean izan zen igandeko jaialdian eta aurtengo ekitaldiaren arrakasta ikusirik, hurrengo urterako nazioarteko mailako ekitaldia burutzera pentsatu dute.



## ANALISI KLINIKOAK, LABORATEGIA

*I. Laborra Erdozain*

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)  
**GINEKOLOGI KONTSULTA**

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE


I  
R  
A  
T  
I

**Ferrerias kalea**  
Tfnoa: 79 71 80





Eugenio Abarrategi eta Beatriz Garaik ezkondu zirela urrezko eztaiak ospatu zituzten azaroaren 30ean. Meza eta bazkariarekin gogoratu zuten, familia guztiarekin batera, 1.940ko egun hura. Eugeniok 84 urte ditu orain eta Beatrizek 73. Argazki zaharra Bartzelonan atera zuten ezkon bidaian, eta bestea parrokian ospakizunean. Mila zorion!!



Orain dela gutxi itxi zen Madrilén Simo deituriko elektronikaren munduari buruzko erakusketa. Erakusleen artean, Mondragoeko firma bat: **Roneok** bulegoetarako atera dituen altzari berriak zituen erakusgai, oso ondo apaindutako erakustokian. Argazkian, Roneoko zuzendaria, **Fernando Rekalde**, azafaten konpainian.

Pentsa dezakezun jostailu erakusketa handiena daukagu zure zain.

Jostailu merkeenak hemen aurkituko dituzu

**Eco Gasteiz** -en

BAZKALORDUAN EZ DUGU IXTEN

**Cercas bajas 34, GASTEIZ**

**Osorik  
pub**

**ANAI JATETXEA**



**BEREZITASUNAK**

- Bixugua arranbarrilan
- Legatza
- Txuletak
- Legatza-kokotak

Nardeaga 32,  
Tfnoa: 945 - 44 51 01 ARAMAIO (Araba)





Bisiten artean, orain arteko jende multzorik handienetakoa Gasteizko **La Paloma** Kultur Elkartekoena izan da. 57 emakume etorri ziren egunpasa Arrasatera, Fagor, Arrasate Press eta ATB ikustera. Interes eta jakinmin handia azaldu zuten arabarrek. Denak kabitzen ez ziren arren, irribarrez jarri ziren argazki makinaren aurrean. Bisita atsegina, benetan.



Juan Jose Iria eta Idoia Axpe ezkondu zirela, pasa dira sei hilabete. Garagarztan ezkondu ziren uztailaren 21ean. Bidaia Canarias aldera egin zuten. Gure zorionik beroenak! ▶

**txutxumutxuak**


**Izen PROPIOAK**

● **JUANJO MENA, 25**, musika zuzendari gasteiztarak Goikobalu eta Jesus Guridi Musika Eskolako ikasleen orkestra zuzenduko ditu abenduaren 29an Mondragoeko Parrokian. Juanjo, musikaren arloan egindako ikasketen aldetik, Bustos eta Bernaola musikari ospetsuen ikaslea da.

● **CARLOS AZTIRIA, 24**, legezpiarrak azaroaren 29an aurkeztu zuen Eskola Politeknikoan karrera amaierako proiektua, Autobusen Klimatizazio Sistemaren Automatizazioa gaiari buruz. Karlosek Eskola Politeknikoan ikasi zuen Injinerutza Teknikoa..

● **JOSE LUIS ORMAETXEA TXIPI, 36**, arrasatearra, Arrasateko Toponimia jaso, sailkatu eta erabakitzeke Udalak ateratako bekarekin ari da lanean. Beka hamalau hilabetarako izango da. Txipik Euskal Filologia eta Filologia Erromaniko ikasketak eta Dialektologiari buruzko hainbat ikerketa egin ditu. Gaur egun Gasteizko Irakasle Eskolako irakaslea da.

Epelde



**Nutrisan-Arrasate Zentru Medikua**

- Nutrizio eta dietetikako espezialitatea.
- Mesoterapia estetikaren tratamendua.
- Kirurgia estetikoa eta plastikoa.
- Elektroeskultura-gimnasia pasiboko mahala.
- RIA laborategia: analisi klinikoak eta alergiak, Lagun Aro eta beste batzuk.

Ordutegia: goizeko 8etatik arratsaldeko 8etara (aurrez ordua eskatu).

Kale-Aldea 11, etxabehea, Tfnoa: 79 65 78 ARRASATE

**ETXE-AUNDI**

**Ostiraletan dastatu gure menu bereziak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
ONATI



# Uso mezulari azkarrak

**Telefonoz deitzearekin bat, autoa edo motorra hartuta zure aginduetara diren mutilak**

**P**resa handia daukazunean, eta mezua edo paketea bidaltzeko modurik ez, mezulariak dituzu eskura.

**B**ulego txikia, harrerako leihoa, tailer txikia, eta batez ere telefonoak, hots handiz bezeroen eskariak dakartzaten telefonoak. Arrasateko MRW mezulari zerbitzuan hiru neska daude telefonoari erantzuteko, eraman-ekarrirako enkarguak jasotzeko. Baina, batez ere, motorra edo autoa hartuta hara eta hona dabilzan mutilak ezagutzen ditugu, eurak dira eta bezeroari zuzeneko zerbitzua egitera joaten direnak, telefonoko ahotsak "bai, oraintxe doa" esan ondoren, agindutako enkargua beteko duena. Lau auto eta hiru motor daude.

Arrasaten daudela bost urte etorriko dira martxoan, eta hiriburuetan mezulari enpresa ugari badaude ere, berau da zaharrena eta herri mailan bakarra. Bailara gutzirako zerbitzua Arrasateko honek eskaintzen du. Etxe nagusia Bartzelonan dago eta izena bezala prezioak eta ordutegiak eta gainerako guz-


tiak ere berdinak dituzte. Enpresa independiete txikiz osatutako elkargoa dela esan daiteke.

## Zerbitzuaren gorabeherak

**L**an moten artean, alde batetik zuzeneko zerbitzua dago, bezeroak eskatu ordutako paketea hartu eta eskatutako lekura eramatea, alegia. Beste zerbitzu mota zubia esaten zaiona da, agindutako egunean bertan entregatzea, baina ibilbidea luzeagoa denez, egunaren amaieran uzten dira eskatutako lekuan: Madrilera, goizean irten eta arratsaldean entregatu, Donostiara lau ir-

**"Gainerako gidariek ez dute askotan motordun mezularia errespetatzen, eta erriskuan ibiltzen gara"**

teera egunean, eta gainerako leku askotara, egun guztian zehar jaso eta hurrengo goizean banaketa egiten dute beste hiri horretako delegaziokoek.



Zubia erabiliz etorritakoak urrengo egunean banatzen dira

Egunean zenbat zerbitzu egiten duten ez dago esaterik, baina. Zubia erabiliz 60 inguru izaten dira egun normaletan eta zuzenekoak 25 inguru. Astearen amaiera aldera, jai luze eta oporren aurretik eta Gabon inguruan, askoz lan gehiago izaten da.

## Bezeroak eta merkantzia

**B**ezeroak enpresak izaten dira batez ere, eta bazkide egiten direnez, urtean

barik enkarguarekin datozenak. Etorri, gainera, oso gutxi etortzen da bertara. Bazkide egitea, zerbitzua sarri behar duenarentzat behintzat merkeago da, bazkide ez denari %20ko gainkarga ezartzen bait zaio. Arrasate eta inguruetan ia 200 bazkide dituztela esatea besterik ez dago hedapenaren garrantziaz jabetzeko. "Betiko bezeroak erantzunaren garrantia osoa jasoko du, deitzen duen momentuan gauza guztien gaintetik, erantzuteko konpromezua daukagu eta".

Eraman beharrekoa gauza txikia izaten da normalean, oso handia ezin bait da, furgonetak ere txikiak izaten dira eta. Zuzeneko zerbitzuan 400 kg. hartzen dira gehienez, zubituan bost kilo bakoitzeko kobratzen da, eta normalean sobreak, pakete txikiak izaten dira, "hainbeste urgentzia barik baina karga handiagoetara beste enpresa batzuk ere badaude eta. Urgentzia, bere-



halakotasuna eta gauza txikiak da gurea”.

Kobrakizunetarako, zerbitzu zuzena 46 pta. kobratzen da motorrarekin, eta furgonetaz baldin bada 50 kobratzen dute, eta 1.700 irteerarengatik. Puentean, berriz, 1.200 kobratzen da zerbitzua probintziaren barruan bulegora ekarriz gero merkeago. Estatu barruan berdin kostatzen da, 1.700 pta., edozein puntutara. Gainkarga izaten da, bestalde, itxaron beharragatik, garraioa uzteko egin beharreko gertualdiko, eta gauzez lan egiteagatik.

Eta motordunak zer?



Lau auto eta hiru motor erabiltzen dituzte Arrasateko mezulariek

Mutilak, goizean etorri ahala bidaltzen dituzte mandatuak betetzera, eta kilometroko irabazten dute, gutxiengo soldata batez gain. Bakoitzak bere ibilgailua ipintzen du lanerako, eta autoaren edo motorraren konponketa, mantenuaren ardura eta gasolina euren gain.

Herri barruan ibiltzeko, eta hirietako lanetarako batez ere, askoz ere erosoagoa da motorra, eta bidean autoak ateratzen dion aldea aisa irabazten da hiri barruan ibiltzeko eskaintzen duen erraztasunarekin. Motorrean dabilenak, “bataz besteko moduan mila eta bostehun kilometro inguru egiten ditugu, eta zenbaitetan askoz gehiago”. Zerbitzua egin eta

bueltan irtetzera doazenean dei egiten dute normalki bulegora, “eta arazoak izaten ditugu ondo dabilen telefono kabina aurkitzeko”, dio batek, hori behintzat idazteko eskatuaz.

Zerbitzuaren urgentziak eraginda, abiada azkarregian ibiltzera behartuta daude askotan, “bezeroak hona deitzen dutenerako, berandu dabilzan seinale”. Eraman beharrekoen artean, gauza bitxiak ere izaten dira, “lore sortak, animaliak ... Behin ospitaleko kaxa bat jaso genuen eta ez ziguten ezer berezirik esan. Kaxa buztita zegoela ohartzean, berogailuan jarri genuen, eta orduan eta buztiago, Izotzetan gordetako zerbait izan...” .

## Modutan aldatu dira gauzak

**G**arai bateko Marathoiko korrikalari mezudunak, eta erakutsitako usoak, posta zerbitzuak ordezkatu zituen beranduago. Aspaldian asko aldatu da, baina, alde batetik bestera bidaltzen diren gaien zer nolakoa eta garraio bide berriak agertu dira ondorioz. Korreo geldiarene arazoak, norberak joan ezin duenean gertatzen diren beharlekuak denok ezagutzen ditugu gainera. Herri batetik besterako mandatariak, herriak hiriekin lotzen dituztenak, ezagunak ditugu Arrasaten. Gasteiza, Bilbora eta Donostitara egunero joaten dira. Mezularientzat, hala ere, ez dira kompetentzia, errekadistek partikularrekin egiten dute -eta lan gehiago.

Edozein modutakoa direla ere, abildade berezia dute enkargulariok hirian barrena helbideak mapan bilatu, hirian sartu eta emandako helbidean agindutako orduan utzi beharrekoa uzten.

**Lore** lurrindegia


Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

**BRANKA**  
**jatetxea**

Eguneko menua eta karta



# DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aldi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-arruzko azalak, 24 kilatetako urrez sutan eginak estanzazioekin.
- Landare-hariz jostilako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokonposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.



**Euskara ikasteko erabili beharreko obra**

**OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)**

**LASTER PREZIO IGOERA**

**Ernesto Amaia Argitaletxea**  
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO  
 Tfnok: 94-445 46 89 eta 446 69 93





# Elur melur...

**Eguraldi txarrak ez zuen eraginik izan  
Zaldibarko Txapelketan**

# IKER



**SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala enparantza z/g, Tfnoa: 79 00 43**  
**BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde 52, Tfnoa: 79 99 42**  
**ARRASATE**



IKATZ-EN DITUGU  
AZKEN ARGAZKI-MAKINA ETA  
BIDEKAMARA BERRIAK SALNEURRI EZIN  
HOBEAN, GURE ARRASATEKO IKATZ  
DENDAN HIRU HILABETETAN INTERESIK  
GABE ORDAINZEN BAITA.  
IKATZ-EKO EGAKINAREN ATZETIK  
JOAN ZAITEZTE!



**IKATZ ARGAZKI ETXEA**  
ITURRIOZ 8 · 770401  
ARRASATE





## A taldea

	Partidak				Golak		Pkt.
	Jbat.	Jab.	Abts	Gald.	Aktb.	Ark.	Tak.
Sumin. Ugarte	10	9	0	1	61	21	18
Bizkorrak	10	9	0	1	46	21	18
Zortzikin nahiko	10	8	0	2	63	31	16
Golfos Persicos	10	7	2	1	53	17	16
Autovia patutia	10	6	1	3	37	32	13
Potrozorri	10	6	1	3	35	31	13
Mutikotes	10	5	0	5	34	25	10
Kakajauri	10	3	2	5	20	36	8
Cañ. Pto. Urraco	10	2	3	5	25	28	7
Ezkinako ontzak	10	2	2	6	23	41	6
Ugarixoak	10	2	1	7	30	49	5
Yokese	10	1	2	7	18	41	4
Bar Alcalde	10	1	1	8	30	68	3
Bayern de Leniz	10	1	1	8	28	62	3
	140	62	16	62	503	503	140

## B taldea

	Partidak				Golak		Pkt.
	Jbat.	Jab.	Abts	Gald.	Aktb.	Ark.	Tak.
Zuloak	10	9	0	1	68	22	18
Arrasate Kirolak	10	8	0	2	52	29	16
Kriskibalda	10	7	1	2	52	26	15
Los Heredia	10	6	1	3	65	29	13
Sokoa-600	10	6	1	3	35	39	13
Toki Eder	10	6	0	4	48	53	12
Laso Arregi	10	6	0	4	45	33	12
La ira de Odin	10	5	1	4	46	33	11
El Regreso	10	3	1	6	46	57	7
Okendo Kirolak	10	3	1	6	41	50	7
Aizpun bila	10	3	0	7	39	50	6
Solano 90	10	2	0	8	36	54	4
Resakas	10	2	0	8	28	71	4
Gimnasio Saioa	10	1	0	9	12	67	2
	140	67	6	67	613	613	140

## C taldea

	Partidak				Golak		Pkt.
	Jbat.	Jab.	Abts	Gald.	Aktb.	Ark.	Tak.
Alperrak	10	10	0	0	83	29	20
Fosforos	10	8	0	2	73	43	16
Pepelus	10	8	0	2	50	33	16
Artano	10	6	2	2	58	33	14
Zelai	10	6	1	3	65	37	13
Bar Kajoi	10	6	1	3	55	33	13
Diego Antonio	10	6	0	4	72	38	12
Sannan Hussein	10	5	1	4	34	32	11
Kannabis boys	10	4	1	5	56	51	9
Los motz	10	4	0	6	49	55	8
Neptuno	10	2	2	6	31	72	6
Steaua del grifo	10	2	2	6	23	58	6
Danok lagun	10	2	1	7	35	53	5
Bacilona	10	1	2	7	40	65	4
Muru Barren	10	2	0	8	27	51	4
M.G.M.	10	1	1	8	16	84	3
	160	73	14	73	767	767	160

## D taldea

	Partidak				Golak		Pkt.
	Jbat.	Jab.	Abts	Gald.	Aktb.	Ark.	Tak.
Argi ibili	10	10	0	0	102	26	20
Lorategi-Potroak	10	8	0	2	54	35	16
Artzanko's	10	7	1	2	50	22	15
Adelaida	10	7	0	3	57	24	14
Camerun's	10	6	1	3	74	25	13
Sisepuede	10	6	0	4	43	21	12
Balaikae	10	6	0	4	34	37	12
La ban. de Pepe	10	4	2	4	40	44	10
Rayo Vatika-no	10	5	0	5	38	44	10
Babarias	10	4	2	4	32	40	10
Gau azkenak	10	5	0	5	31	25	10
Avinagraos	10	3	1	6	29	51	7
Inter de alimañas	10	2	0	8	22	59	4
B.B.V.	10	1	1	8	20	71	3
Gastaos	10	1	0	9	23	86	2
Sukumu.-Aterpe	10	1	0	9	15	54	2
	160	76	8	76	664	664	160



**OMU**  
**ZERAMIKAK**

- Biltegia: Meatzerreka z/g, Tfnoa: 79 14 28
  - Erakusketa: Otalora 1, Etxabea, Tfnoa: 79 07 20
- ARRASATE**

**KAJOI**

**TABERNA**

*Erdiko kale 22,*  
**ARRASATE**





Lerro hauetan, atetik azkar eta ondo ateratzea garrantzitsua zela adierazi genuen behin. Gaurkoan, argi ikusten denez, gauza bera esan daiteke, baina gaineratuz atezainak ateratzen duenean bai aurrelariak eta baita atzelariak argi ibili behar direla, batak baloia jasotzeko eta besteak, ahal izanez gero, lapurtzeko.

## E maitzak

### A taldea

Suministros Ugarte 9	Bar Alcalde 5
Ezkiñako ontzak 5	Cañon Pto.Urraco 2
Zortzikin nahiko 3	Golfos Persicos 2
Bizkorrak 2	Kakajauri 1
Yokese 1	Autovia patutia 5
Mutikotes 7	Bayem de Leniz 2
Potrosorri 7	Ugarixoak 2

### B taldea

Lobo's 3	Resacas 1
Arrasate Kirolak 5	Solano 90 2
Laso Arregi 0	Zuloak 7
Toki Eder 6	Los Heredia 4
La ira de Odin	Gimnasio Saioa
El regreso 11	Aizpun bila 4
Kriskibalda 2	Okendo Kirolak 1

### C taldea

Sannan Hussein 3	Artano 7
Diego Antonio 9	Steaua del Grifo 1
Fosforos 4	Alperrak 11
Kannabis boys 6	Bar Kajoi 9
Zelai 9	M.G.M. 3
Danok Lagun 5	Muru Barren 3
Pepelus 11	Neptuno 4
Los motz 9	Bacilona 6

### D taldea

Ptroak 6	B.B.V. 3
Avinagraos 3	Argi Ibili 13
Sisepuede 4	La Banda de Pepe 6
Camerun's 23	Gastacos 0
Inter de alimafias 1	Adelaida 5
Artzanko's 4	Babarias 1
Gau azkenak 2	Rayo Vatika-no 4
Sukumurus- Aterpe 1	Balake 6

**OPEL**   
Hobeak esperientziatz

**TALLERES OLA, S.A.**  
Erakusketa Arrasaten:

Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

  
**Horategi**  
**Kafetegia**

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67



**GATZAGA**  
Jatetxea

**EGUNEROKO  
MENUA  
ETA KARTA**

Olarte kantoia 3,  
Tfnoa: 79 84 53  
ARRASATE

Libretoia

**BBV**





# Txutak

## TALDE BAT KANPORATUA

Asteburu luzean jokatu ziren partiduei begira, lehenik eta behin eguraldiari buruzko aipamenak egin behar dira. Izan ere ez zuten adorerik falta izan euripean, eta batzuetan elurpean, praka motzak jantzi eta baloiaren atzetik korrika ibili zirenek. Alde horretatik, zorionik beroenak eguraldiari aurre egin eta jokatzeko ausardia izan zutenei, baietza eman zioten txapelketari fideltasun berezia erakutsiz.

Dena dela, talde guztiek ez zuten jarrera bera erakutsi, Gimnasio Saioako jokalaria ez bait ziren jokatzera agertu. Egia da talde hori sailkapeneko azken postuan dagoela, eta ondorioz zeregin gehiegirik ez duela; baina egia da ere, La ira de Odin taldekoei, aparteko graziarik ez ziela egingo jokatzera agertu eta areririk ez aurkitzeak. Horregatik, zigortuak izan dira eta txapelketatik kanpo gelditu dira.

Emaitzei begiratu zergo, azpimarragarriena Camerun's taldeak Gastaos taldearen aurka lortutako gol kopurua litzateke, 23. Ez dira ez, gutxi.

*Beñardo Kortabarria*

## DATORREN ASTEBURUAN

### A taldea

Eskifako Ontzak .....	Suministros Ugarte
Zortzikin nahiko .....	Cañon Pto Urrako
Bizkorrak .....	Golfos Persicos
Yokese .....	Kakajauri
Mutikotes .....	Autovia patutia
Potrosorri .....	Bayem de Leniz
Bar Alcalde .....	Ugarixoak

### B taldea

Arrasate Kirolak .....	Sokoa 600
Laso Arregi .....	Solano 90
Toki Eder .....	Zuloak
La ira de Odin .....	Los Heredia
El regreso .....	Gimnasio Saioa
Kriskibakda .....	Aizpun Bila
Resacas .....	Okendo Kirolak

### C taldea

Diego Antonio .....	Sanann Hussein
Fosforos .....	Steaua del Grifo
Kannabis boys .....	Alperrak
Zelai .....	Bar Kajoi
Danok Lagun .....	M.G.M.
Pepelus .....	Muru Barren
Los motz .....	Neptuno
Artano .....	Bacilona

### D taldea

Avinagraos .....	Lorategi-Potroak
Sisepuede .....	Argi Ibili
Camerun's .....	La Banda de Pepe
Inter de alimañas .....	Gastaos
Artzanko's .....	Adelaida
Gau azkenak .....	Babarias
Sukumurus- Aterpe .....	Rayo Vatika-no
B.B.V. ....	Balaïke



## GURE LEKU

taberna

Zarugalde kalea, Tfnoa: 79 20 29



## Eskien konponketa


Iturriotz 14, Tfnoa: 79 11 58  
ARRASATE

# TELLERIA

## autoeskola

- Mitarte 18, Tfnoa: 79 53 51 ARETXABAETA
- Juan Carlos Gerra 2, Tfnoa: 79 18 39 ARRASATE





Markos Vitoria

## Historia hurbilaren lekuko

**M**arkos Vitoria, Arrasaten jaiotako duela 84 urte. Gaztetatik langileen arazoengatik ardura izanik, Arrasateko Alderdi Sozialistaren sortzailetarikoa izan zen. 34eko Urriko Iraultzaren kanpora aterata behar izan zen eta aspalditik, bere emaztearekin, Frantzian bizi da.

— Nola hasi zinen langileen eskubideak lortzeko borroka egiten?

— Beno, ni hamar urtera arte hemen egon nintzen eta gero Santa Agedara joan nintzen, artzain. Gero Elorriora, lanera. Lanean nenbela, 14 urtetik beherakoak lanik ezin zutela egin zioen legea ateratu zuten, eta azkenean morroi egon nintzen Elorrio eta Sorluzen. Aspertu nintzenean Arrasatera itzuli eta Cerrajeran sartu nintzen. Berehala metalurgikoen sindikatoarekin lanean hasi nintzen, UGT sindikatoarekin hain zuzen.

— Arrasateko Alderdi Sozialistaren sortzailetarikoa zaitugu, ez?

— Bai, hemen Alderdi Sozialista 1927. urtean sortu zen, eta hasiera hasieratik ekin genion lanari. 1931. urtean Errepublikak ezarri zen, orduan alderdian 60ren bat

partaide ginen, sindikatuan berriz 600 edo 700 izango ginen. Gezurra badirudi ere, diferentzia horren arrazoiek ez zeukaten ideolojiarekin zerikusirik, orduan sozialista izateko behar beharrezkoa bait zen gizon fina izatea, ez mozkortzea, andrearekin ondo konpontzea... eta hori gogorregia zen.

— Cerrajeran lanean hasi zinenean Toribio Agirre zen nagusi, zer moduzko pertsona zen?

— Askok esaten zuten oso pertsona ona zela, eta berari esker Arrasaten jendea ondo bizi zela. Baina ez da egia, langileekin berak nahi zuena egiten zuelako. Errepublikak iritsi zenean hasi ginen aldaketak eskatzen eta

— Beno, Madrilen Errepublikaren aurkako neurriak hartu zituzten, eta guk, pentsatuz toki guztietan gauza bera egingo zutela, herria hartu genuen, Goardia Zibilen koartela ezik, eta sozialismoa ezarri. Marcelino Oreja, Rikardo Azkoaga, eta Dagoberto Resusta bahitu gisa hartu genituen, baina eguerdiko ordubiak aldera soldaduak agertu ziren eta iskanbilan Marcelino Oreja eta Dagoberto Resusta hilik gertatu ziren.

— Eta nola gertatu zen hori?

— Nik neuk ez dakit baina hilketak horien errua nire anaiari bota zioten, gezur hutsa. Arratsaldeko 6ak inguruan, soldaduak herrian zeuden eta guk mendira egin

mendik Frantziara iristeko. Buelta ikaragarria eman genuen inork ez aurkitzeko, beti herri txikietatik igaroz. Lehenengo Arabara joan ginen, eta gero Nafarroara, Etxarri Aranazera, han lagunak neuzkan eta. Goardia Zibila ere etortzen ikusi genituen, baina eurek ezer esan aurretik geuk agurtu genituen eta engainatu gainera.

— Geroztik Frantzian?

— Ez, bueltatu ere egin nintzen, baina gerraren ondorioz berriro hanka egin ere bai. Hango bizi maila hemengo baino hobea da, baina hangoek ez dakite hemengoek bezala bizitzen.

— Badu zer ikusirik zure garaiko Euskadiko Alderdi Sozialistak oraingoarekin?

— Alderdia gauza bera da, diferentzia bakarra, oraingoan euskaldunak ez daudela barruan. Lehen euskaldunak geunden barruan, eta gure artean euskaraz egiten genuen. Gaur ere, uste dut alderdi euskalduna dela, ni neu euskalduna naiz eta uste dut alderdi euskaldunean nagoela. Euskaldun sentitzen dena eta era berean sozialista, Alderdi Sozialistako partaide izan beharko litzateke, alderdia euskalduntzeko. Tresna bezala, Alderdi Sozialista orain ere oso baliagarria da Euskadirentzat.

“Nire anaiari leporatu zioten hilketak gezur hutsa da”

mugitzen. Dena dela, Toribio Agirre hil zenean Marcelino Oreja jarri zen nagusi, eta gauzak okerrera jo zuten. Neurri gogorrek aldarrikatu zituen, eta jendea aurka ateratu zitzaion.

— 1934eko urriaren Sak, zer gogorarazten dizu?

genuen alde.

— Eta gero zer gertatu zen?

— Hemen gelditu zirenak gartzelatuak izan ziren, guk berriz, Frantziara alde egin genuen. Abentura gogorra izan zen, lau lagunek sei egun eman genituen he-



# Kuadrilen arteko Eguberriko Txapelketa

*Centraljet-ek Patronatori irabazi zion*

Hilaren 24etik urtarrilaren 6ra bitartean, Musakolako kiroldegian, kuadrilen arteko Eguberriko Saski-baloi Txapelketaren hamahirugarren edizioa jokatu da. Txapelketa honetan parte hartu nahi duten kuadrilek, ohi denez, gehienez hamabi jokalariren izena eman ahal izango dute, bat federatua izan daitekeelarik.

Eguberriko Saski-baloi Txapelketa dela eta, larunbatean eguerdiko hamabietan Monterronen bilera bat burutu da. Bilera honen helburua bikoitza da, alde batetik txapelketaren antolakuntza nolakoa izango den erabaki, eta bestetik parte hartzeko prest dauden taldeen izenak hartu. Izena emateko orduan talde bakoitzeko ordezkariak, taldearen izena eta jokalariren zerrenda aurkeztu beharko ditu, 5.000 pezeta ordaintzeaz gain.

Aipatzekoa da txapelketa hau jokatzaren den egunetan, Zaldibarko futbito txapelketari dagokion partidurik ez dela jokatu, bientzat tokirik ez bait dago.



## Centraljet bikain

Saskibaloia utzi gabe, baina konpetizio ofizialetera pasatuz, esan behar da joan zen asteburuan Arrasateko saski-baloi taldeak, Centraljet Euskal Air-ek, garaipen garrantzitsua lortu

zuela Bilboko Patronato taldearen aurkako neurketan. 500 ikusle inguru bildu ziren Musakolako kiroldegian partidu hau ikusteko, eta ezin gustorago atera ziren taldearen jokoagatik.

Lehen zatian, jokoaren kontrola denbora guztian etxekoan eskutan egon zen, eta atsedenaldirako hamaika puntutako abantaila zeraman markagailuan, 48-37. Bigarren zatian gauzak okertu egin ziren, bilbotarrek bost saskiratze hirukoitz lortu bait zituzten, bata bestearen ondoren. Markagailuan aurrea hartu ere hartu zuten kanpotik etortitakoek, baina azkenean Centraljet Euskal Air taldeko jokalariek erreakzionatu egin zuten eta garaipena lortu: 99-95. Norbaiten lana aipatzekotan, Gutierrezena aipatu behar, jubenila izanik, aparteko lasaitasuna erakutsi bait zuen. Datorren astean Azpeitiko Loiola 91 taldearen aurka jokatu beharko dute arrasatearrek, eta, teoriarik behintzat, garaipena eskuratu beharko lukete.



## Liderraren aurka galdu

Ez zen posible izan. Arrasate Esku-baloi Taldeko jokalariek gogoz itxaroten zuten Arrate taldearen bisita, liderraren bisita hain zuzen, baina gogo horiek ez ziren nahiko izan eibartarren joko ona gaintzeko. Hasieran eutsi zioten bai arrasatearrek, baina eibartarrek partidu erraz bat galtzetik zetozen, eta egoera hori berriro errepikatu ez zedin, ahalegin guztiak egin zituzten. Azkenean, markagailuak bi taldeen arteko diferentzia adierazi zuen: 22-32 eibartarren alde. Datorren astean Ormaiztegin jokatu dute arrasatearrek. Irabaztea normala izango litzake.



**HAURTOKO**

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE

**FANCY**

**GAZTEEN MODA!** Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24



## IÑIGO IGARTUA

### Ziklo-kroseko etorkizuna

# PODIUMA



Iñigo Igartua, bergararrak, ia bizi guztia darama bizikleta gainean eta era berean bizikleta gainean darama, izan ere ziklo-krosa egiten du. Iñigo Igartua duela 22 urte jaio zen, Bergaran bertan, eta gaztetatik txirrinduan ibiltzen hasi zen. "Hasieran errepideetako lasterketetan ibili nintzen, baina, txarra izan gabe, arlo horretan etorkizun handiegirik ez nuela eta, ziklo-krosa egiten hasi nintzen". Egia dio Iñigo Igartuak errepideetako lasterketetan zeharo txarra ez zela esaterakoan, aurtengo denboraldian hamarren batean parte hartu bait du, oso postu onak eginez. Errepideetako denboraldiko postuak abisu balira bezala, bergararra ziklo-kros frogetan inoiz baino indartsuago agertu da. "Kostatu zait, baina azkenean lortu dut lasterketa bat irabaztea. Demaseko poza hartu nuen profesionalei irabaztean, bigarren postuak asko egin bait ditut, baina garaipenen falta somatzen nuen. Behar bada, lasterketetako azken metroaerako ondo etorriko litzaidake abiadura handiagoko gizona izatea, baina ez naizenez..."

Azpeitiko lasterketa izan da Igartuak irabazitakoa, bertan Estatuko

profesionalen sortari irabazteaz gain, atzerritik etorritako beste batzuei ere, Pascal Richard-iesaterako, aurrea hartu zien. "Duela denbora gutxi, kanpotik norbait etortzen zenean inolako eragozpenik gabe irabazten zuen, normalean. Orain badirudi kanpotarren eta hemengoaren artean zegoen aldea, txikitu egin dela, behintzat denbora gutxiago ateratzen digute".

Azpeitian irabazi, beste lasterketa askotan postu onak egin, baina, urtero bezala, Igartua ez da horrekin konformatzen eta Munduko Txapelketara begira entrenatzen ari da. "Munduko bost txapelketetan hartu dut parte, iazkoa hoberena izan zelarik, hamabostgarren gelditu nintzen eta irabazleak bakarrik minutu bat atera zidan. Aurtengoan ere daramadan progresioari eustea espero dut, urtez urte postuak hobetu egin bai ditut. Gainera oso erregularra naiz". Ea bada, nola doakion lokatzetan zein errepideetan berdin moldatzen den mutil honi.

#### ◆ Emakumezkoen futbola

Mondrako emakumezkoen futbol taldeak Urretxuko taldearen aurka jokatu behar zuen partidua, elurrak sortutako arazoak zirela eta, ez zen jokatu. Seguru ez bada ere, baliteke partidu hau hilaren 23an jokatzera. Bestalde, aipagarria da Aretxabaletako emakumezkoen futbol taldeak Zarautz taldearen aurkako partidua galdu egin zuela, 2 eta 0ko emaitzaz. Dena dela, atxabaltarrek oso partidu ona jokatu zuten, kontutan hartzen bada zarautzarraren kategoriako talde indartsuenetarikoa dela, baina ez ziren golak sartzeko gauza izan.


#### ◆ Berdinketa rugby-an

Arrasateko rugby taldeak lehen partidua jokatu zuen Garagartzako zelaian, eta, egia esan, ez zitzaion zeharo gaizki joan Bilboko taldearekin 6ra berdintzea lortu bait zuen. Bilboko taldea sailkapeneko hirugarren postuan dago eta aurrez, etsai zaila zen. Dena dela, arrasatearrek ondo jokatu zuten eta berdinketa lortu. Azken emaitzen arabera, badirudi Arrasateko taldearen jokia asko hobetu dela eta poliki-poliki sailkapenean gora doala, azkenean mailari eusteko arazorik izango ez duelarik.



- \* Candanchu: Elur hautsa. Pista guztiak zabalik.
- \* Astún: Elur hautsa. Pista guztiak zabalik.
- \* Valdezcaray: Elur hautsa. Pisten %80a zabalik

Bertara joateko kateak behar dira



# EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia


- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal Inprimakiak
- Bulegoko materiala



# Xabier Lete, poeta tristea

**E**zin epaitu maitatzen duguna. Eta nik -aitortzen dut- biziki maite dut "erreka zikinen iturri garbiak aurkitu nahi dituen poeta tristea". Erraie-tan daramatzat berak asma-tutako poema eta doinuak, neure odola bezainbat senti-tzen ditut neureak. Bihotza-ren agindupean ari naiz lerro hauek idazten, Durangoko kantalditik bueltan.

Ikusmin handia sortu du kantaldiak. Sarrerak agortu egin dira eta jende ugari ge-ratu da kanpoan. Nostaljiaren eragina, dudarik gabe. Hil-zorira eraman zuen herio la-tzaren osteko morboa, agian. Hargatik ala honengatik, han geunden denok zain, urduri,



iraganarekin aurrez aurre topo egiteko beldurrez eta desioz.

Kantaldiaren lehen zatian Xabierrek tanteatu egin gai-

tu. Ez zekien ziur ea entzu-leekin komunikatzeko ain-tzinako gaitasunak iraungo ote zion. Hori baieztatu due-nean hasi da benetan kantal-

dia, orduan hasi da Xabier bere barrena kiskaltzen du-ten saminak kanporatzen, orduan erakutsi digu zenba-teraino den poeta tristea.

Isildu aurretiko azken garaietan hasi zuen erre-flexioak areagotu du Xabie-rreren tristura, erreflexio horren ondorioek eraman dute itza-lak eta iluntasunak azpima-rratzera. Hil zoriaren zirrara sakonak libratu du entzule-goari gustatu beharrak ezar-tzen zizkion morrontza guz-tietatik.

Ilun ikusten ditu Xabie-rrek ingurua eta egoera. Eta horixe litzateke disimulurik edo epelkeriarik gabe Du-rangon agertu nahi izan di-guna.

Mikel Irizar

## EURO XT ▲

3.5"tako disketegia  
20 Mb disko gogorra  
Kolare bakarreko monitorea 14"  
Sistema eragilea

PSN-PVP= 164.304 pta.

## ▲ EURO PC II

3.5"tako disketegia  
Kolare bakarreko monitorea.12"  
Sistema eragilea  
4 joko

PSN-PVP= 94.640 pta.

## EURO AT 20Mb ▲

3.5"tako disketegia  
20 Mb disko gogorra  
Kolare bakarreko monitorea 14"  
Sistema eragilea

PSN-PVP= 231.840 pta.

## ▲ EURO AT 40 Mb

3.5"tako disketegia  
40 Mb disko gogorra  
VGA koloretako monitorea  
Sistema eragilea

PSN-PVP= 295.042 pta.

# FAST

# 2000

**ARGAZKI  
MAKINA**  
zoragarri bat  
**ERREGALATUKO**  
dizugu  
ordenadorea  
erostean.  
Urte amaiera arte  
balio duen  
eskaintza

BEZ sartuta dago  
prezio guztietan

Zain gaukazue  
Ferrerias kaleko 50ean.  
Tfnoa: 77 14 75 ARRASATE

Fast 2000an ordenadorearentzat behar duzun guztia aurkituko duzu: Inprimagailuak, Disketak, Ordenadore estalkiak, Mahaiak, Jokoak, eta markarik onenak: Schneider, Top Computer, Epson, Manesman, 3M...





# EUSKARA HOBETZEN

Udaletxe, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzako langileak dira. Zerbitzu hobe eskaintzeko ari dira lanean ■ Bere euskara lantzen ari dira ■ Zuk ere lagundu dezakezu, edozein Herri-Erakundetara zatozenean, Euskaraz hitz eginez ■ Denon artean gero eta Herri Erakunde eta Gizarte euskaldunagoak egingo ditugu ■ Zure eguneroko harremanetan eta Herri-Erakundeetan ■



## EGIZU EUSKARAZ

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EZARTZEKO PLANGINTZA

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO



## Norberak hizkuntz gaitasun maila bat du, hain zuzen ere, hizkuntzak berak norberarengan daukana

**E**uskara ezagutzen ez duenak ezin euskera erabili, eta, zoritxarrez, %50etik gora diragure Arrasate honetan ere euskeraz mintzatu ezin direnak, ez dakite eta.

Euskerba ba ei dakigunon artean ere, diferentzia handiak ikus daitezke: batzuk kalean eta etxean oso lasai moldatzen dira euskeraz baina lanean (lantegian, bulegoan, aseguru etxean,...) erabiltzeko ez daukate gaitasunik, ez dute horren beharrik izan eta ez dira alfabetatu eginkizun horretarako. Beste jende batek lanean (eskoletan, administrazioan...) moldatzen da euskeraz eta

lan hau betetzen du nola edo hala, baina etxean eta kalean lasaitasunez eta eroso erabiltzeko gatza eta piperra falta zaie, euskal sena hitz batean.

Eta euskal senarena da gakoa hain zuzen ere, euskera gizarte bizitzan erabiltzen ez denez normalatasunez, ba euskaldunok ere hainbat eta hainbat zereginetarako ez daukagu erreztasunik euskeraz. Ereduak gaztelaniaz jasotzen ditugu behin eta berriro, eta etengabe itzultzeko gaitasunik ez daukagunez, gehienetan ereduak errepikatzen mugatzen gara. Makrostruktura osoa erderaz bizi da eta horrek ondorio zuzenak dakartza gainerako mikrostruktura guztietara,

azken finean erderaz bizi beharra daukagu neurri handi batean nahitanahiez. Hori horrela da.

Baina, edozein modutan, norberak galdetu behar dio bere buruari ea zertarako egiten dion falta gaur egun euskarak, ea gaur egun erabiltzen ez duen tokietan zergatik ez duen erabiltzen eta ea hizkuntz konportamenduak aldatzea eta aldaraztea

zenbateraino dagoen norberaren gogoaren eta ahalegiaren baitan.

Eta eginkizun honetan adinak zerikusi handia du: behin edade batetik aurrera ezin zehaztu, hala ere, adin hori-buru gogortu egiten omen da, ikastea eta ohiturak aldatzea ezinezko bihurtu, dirudienez; gazteen artean, berriz, euskeraren ezagutza mailan portzentaiarik altuenak ikusten ditugu, eta gogo eta indarra izanez gero baita hizkuntz-konportamenduak aldatzeko kemenik handien. Euskerak, beraz, gazteengan du bizi itxaropena.




Atalataikoan

# EYA

## ELEKTROTRESNAK

Iturriotz 21, Tfnoa: 79 03 84  
Erdiko kale 27, Tfnoa: 79 13 79



## ZENBAKI

**Kontabilitatea**  
**Fiskalitatea**  
**Lana**  
**Zuzenbidea**  
**Juridikoa**  
**Finantzaketa**  
**Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

## ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA

# BAZAR

TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

## MIREN

### APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.  
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE



## Fray Rufino

Fray Rufino,  
Frantzizkotarra.

**N**i ez naiz autoaren jabea, doskaballosa komentukoa da”, dio Rufinok beste ezer baino lehen. Mutikoeek Rufinoren astotxoak deitzen diote hamaika urte dituen auto urdin horri. “Oso obedienteak da autoa”, eta abiadaren aldetik, beti hemen inguruan ibiltzen denez, ez da 80tik pasatzen. Stopean denak hartzen ditu, inguruko ezagunak izaten dira eta, baina “neskekin lotsatu egiten da”. Gatzagatik pasatzean, edozeinekin doala ere, hiru Agur Maria esaten dizkio Dorletako Amari pasadan.



# OPARI-DENDA JOKO DIDAKTIKOAK

Etxe hauekin egiten  
dugu lan:

Eolo-Gayla, Didacticos  
del Sur, Lado, Fontserre-  
Coma, Goula, Fisher  
Price, Constansó, Akros,  
JT, Jokoak, James  
Hamilton Limited,  
Puzzleak, Rosal...  
Kometak, Puzzleak,  
Umeentzako pinturak...



# kumu

Otalora Kalea, Tfnoa: 79 75 43 ARRASATE



# Tontorretako kondorrak (V)

**Y**angunakoko bairala utzi eta Yungaira goaz erosketak egitera, gero Huescaranera joateko. Yungaira heltzen garenean kaleak hutsik ikusi ditugu, dendak itxita eta armada kalean. Prezio igoera izugarria egon dela jakin dugu, dena %1.000igo da. Kalean giro arraroa dago eta jendea haserre. Azkenean lortu dugu zerbait erostea baina ez dena. Gorantz abiatzen gara. Bidean herri batera heldu, zerbait jan eta astoak alkilatu ondoren, berriro goruntz. 4.200 metrora heltzen garenean, kanpamentua jartzen den lekuan gaude. Kanpamentua montatu ondoren, gauzak prestatzen hasten gara hurrengo goizean gorantza abiatzeko.

Gozaldu ondoren hasten gara poliki poliki gorantza. Igoera luzea denez, astiro egitea pentsatu dugu. Lehen egunean glaziarrera sartu eta 5.000 metrotara iristen gara, bertan sabalen kanpamentua eratzen dugu, igoera nahiko erraza da, baina kontuz ibili behar ez galtzeko. Glaziarra oso handia da, marka ugari daude, eta ez da erraza jakitea zein den bide egokiena. Azkenean, piskat galduta ibili ondoren, heldu gara tokira. Dendak jarri, janaria gertatu eta jan ondoren zakura. Hotza gero eta handiagoa da eta ez dago ezer egiteko dendatik kanpo. Zakura arropa eta guzti sartzeko gara kanpoko hotz-beroa 15-20gradu zero azpira doa gaua heltzen denean.

Hurrengo egunean jaiki eta

gosaldu ostean dendak batu eta berriro gora, 2. kanpamentua eratzeraz; bidea zailagoa da, aldatzak gogorak eta grieta asko. Sei ordu ibili eta gero bigarren kanpamentua jarri dugu 6.000 metrotara. Toki honetan ere ez dago asko egiterik, eta laster zakuan gaude. Hotza igartzen da, dena dela, ilunabar zoragarria ikusteko aukera dugu eta kanpora irteten gara ikuskizunaz gozatzeraz. Goizean goiz jaiki eta Iparreko punta egitera goaz, altura handia igartzen da eta oso poliki goaz, oso azkar nekatzen bait gara. Deskantsatu beharra dago. Azken aldatz gogorak igo ondoren lautada handi batera heltzen gara. Ia goian gaude eta aldatz handirik ez dago, baina nahiko nekagarria ger-

tatzen da. Gainera, lainoa sartzten hasia da eta ez da gauza handirik ikusten. Azkenean asko izarditu ondoren, gure helburua lortzen dugu eta oso pozik gaude. Puntan 6.655 metrotara argazkiak atera eta azkar abiatzen gara berantz. Lainoa gero eta handiagoa da eta ez dugu denborarik galtzeko. Poliki poliki bidea galtzeko beldurraz bera jo eta azkenean dendak dauden tokira heldu gara. Hemen jan eta berriro lo egitera. Denok oso pozik gaude puntara denok heltzea lortu dugulako. Hurrengo egunean Agustinek bere etxera gonbidatzen gaitu jatera eta hara jo dugu. Haren familia ezagutu, jan eta agurtzen gera. Orain turismo egin besterik ez dugu.

Hankamotz



## HARATUZTEAK 1990

### Kartel lehiaketarako deialdia

Deialdi hau arautzen duten  
**BALDINTZAK** Udaletxe honetako  
Kultura departamentuan daude,  
interesik duenarentzat.

## MUSAKOLA OSTATUA

Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50



**ARANBURU  
COTEMAR**

Garraio agentzia



Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

## URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE



# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia





Aste gazte

15 eta 29 urte bitarteko Euskal Herriko gazteek lanari buruz gehien baloratzen dituzten arloak:

- 1.- Soldata ona
  - 2.- Lankide atseginak
  - 3.- Enpleguarekiko segurtasuna
  - 4.- Ordutegi ona
  - 5.- Ekimena erabiltzeko aukera
  - 6.- Neke eta presio gehiegirik eza
  - 7.- Lanpostua hobetzeko aukera
  - 8.- Jendearekiko harremana
  - 9.- Lanpostuan zerbait lortu ahal duela pentsatu
  - 10.- Gizartearen onerako lana
  - 11.- Oporaldi luzeak
  - 12.- Ondo baloratua
  - 13.- Erantzunkizuna
- "Euskal Herriko Gazteak-1990"

Lana

• Irungo Udalak honako lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du:

- Kirol Teknikaria
- Mantenimendu ardur.
- Gizarte laguntzaile 3.
- Zentru Gestorea.
- Delineante 2.
- Administrari laguntz.
- Atezain 2.

Instantziak aurkezteko epea: abenduaren 20ra arte (urriaren 26ko G.A.O.-207 zenb.)

Aterpetxeak

- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien Aterpetxe eta Egoitzetan plazak erreserbatzeko epeak:
  - 1991ko Abuztura arte: epea zabalik
  - 1991ko irailetik abendura arte: maiatzetik aurrera

Ikastaroak

- Filosofia-hastapen ikastaroa Arrasaten. Famili eta Gizarte Heziketarako zentroan. Iraupena: 3 hilabete, astean 2 ordu. Hasiera: urtarrilak 8, arratsaldeko 4etan.

Bekak

- Bergarako Toponimia jasotzeko beka. Beka norbanakoek zein taldeek jaso ahal izango dute. Baldintzak: 1.- Euskal Filologiako ikasketak amaituta eduki edo azken urtean egotea, edo "Curriculum Vitae" egoki eta nahiko frogatua izatea. 2.-

Gaiari buruzko txostena aurkeztea. Bekaren zenbatekoa: 500.000 pta. Epea: 90-12-31.

- Giza-Zientzietan ikasketak aurreratuen Zentruak ikasketak burutzeko 8 beka. eskatzaileak: azkenengo hiru urteetan goi mailako ikasketetan lizentziatu direnak edo 1991ko ekainerako karrera amaitzen dutenak. Ingelesa maila ona izatea beharrezkoa da. Bekaren iraupena: 6 hilabete eta 2 urte bitartekoa. Dirulaguntza: hileko 110.000 pta. Epea: 91-2-28.

Lehiaketak

- Arrasate-1991ko Haratuzteak iragartzeko Kartel-Lehiaketa. Arrasatearrei zuzendua. Teknika libre. Saria: 50.000 pta. Lanak aurkezteko azken eguna: 91-1-17.
- Santamas Argazki-lehiaketa. Zuribeltzez edo koloretako gutxienez hiru argazki eta gehienez bost aurkeztu behar dira. Formatoa:

18x24 eta 30x40 artekoa. Sariak: 1.) 25.000 pta (bilduma onenari), 2.) 20.000 (argazki onenari), 3.) 15.000 (2. argazki onenari), 4.) 10.000 (Olentzero edota Txoronpioren argazki onena). Lanak aurkezteko azken eguna: urtarrilaren 9a.

• "Diario de Leon" Kontaketa Laburraren VI Saria. Gazteleraz idatzitako argitaragabeko lanak. Gai libre. Gehienez, 3 orrialde. Saria: 100.000 pta. eta trofeoa. Lanak aurkezteko azken eguna: abenduaren 31a.

• II. Komiki-Lehiaketa (Badajoz). 16 eta 30 urte bitarteko zaletuei zuzendua. Zuribeltzez. Neurriak: 18x24cm. Sariak: 1.) 75.000 pta. 2.) 50.000 pta. Lanak aurkezteko azken eguna: urtarrilaren 19ra arte.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**TEKUN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias 23,  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M ARENAZA**

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU  
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

**77 08 15**



## ETXEBIZITZAK

- Arrasaten, erdialdean lau urteko etxebizitza berogailuz, salgai. Hiru logela, egongela, sukalde amueblatua, bi bainugela, ganbara. Garajea saltzea ere posiblea da. Tfnoa: 79 95 46
- Makatzenan 5. pisu bat salgai daukat, igogailu eta ganbara. Deitu 79 72 39 telefonora.
- Etxebizitza salgai Erguin kalean, oso salneurri interesgarrian. 79 87 41 telefononahi adina informazio.
- Maitena kalean etxebizitza saltzen dut. Interesatuak dei egin 79 33 38 telefono zenbakira.
- Seme-alabarik gabeko bikoteak etxebizitza alokatu nahiluke. Deiegin 79 88 20 telefonora
- Etxebizitza konpartitu baten gela alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tfnoa: 79 66 45. Jabi.
- Etxebizitza salgai, Loramendi 6-14.A . amueblatua. Tfnoa.: 79 98 03 Arratsaldez edo gauez.
- Etxebizitza alokatzen da Gasteizko Adriano VI kalean. Interesatuak dei 79 31 77 tfnora.
- Merkatala lokala salgai. 119 metro karratu, 60.000 pta/metro karratuko. Helbidea JL. Iñarra pasealekua, 26. Tfnoak.: 79 99 81 / 79 92 43.

## LANA

- OHOk klase partikularrak emateko prest. Euskaraz nahiz erdaraz. Dei 79 50 99 Tfnoa. Esther.
- Neska euskaldunak lana egingo luke arratsaldez. Bergara edo Arrasaten. Tfnoa: 76 52 39 gaueko 9etatik aurrera.
- IEE I, II eta OHOk klaseak ematen ditut

larunbat goizetan, bai euskaraz, bai erdaraz. Tfnoa.: 79 99 82. Iñaki

- Andra euskalduna etxeko lanak edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 07 73
- OHOk klase partikularrak ematen dira euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19 Itziar.
- Emakumea umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 97 58.
- Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest. Deitu 79 78 65 tfnora
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak dei egin 79 29 05 edo 79 77 57 tfnoetara.
- Fisika ikasketak ematen dira. Goizean eta arratsaldean. Tfnoa: 77 13 95
- Erregegi batean astebukaeretan lana egiteko bi emakume behar dira. Tfnoa: 76 22 68

## SALEROSKETAK

- Etxebizitza baten ohea alokatzen da. Tfnoa.: 79 07 73
- Pedigree duen Colli txakurra behar da kumeak egiteko. Tfnoa.: 79 64 50. 9etatik aurrera.
- Pastor aleman txakur kumeak salgai. Tfnoa: 79 15 21. Jose Luis Berezibar.
- Musika ekipoa salgai, prezio onean. Tfnoa.: 79 45 39 Joxe Felix.
- MSX ordenadore jokua salgai. Zinta bakarra. Erbe software. Taipan joko. Deitu 79 15 96 telefonora.
- FAGGIN errepedeko bizikleta urdina salgai. Neurria 53. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepedeko bizikleta urdina salgai. Neurria 48. Tfnoa: 78 29 86
- RAZESA errepedeko bizikleta beltza salgai. Neurria 48. Tfnoa: 78 29 86

- RAZESA errepedeko bizikleta gorria/txuria/
- Klarinetea erosiko nuke. Tfnoa: 78 16 19. Maritere
- Larruzko botak 42 zenbakia, Thinsulate Vibram eta altzairuzko plantila oso ondo zainduak. 7.000 pta.tan salgai. Kranpoiak lotura sarekin 12 puntazkoak ia berriak, 5.000 pta.tan. Mikel, ostegunetik astlehenera gauez. Tfnoa: 79 53 40
- Zibro Kamin RCA-86B berogailu japoniarra bi urtekoa eta egoera onean salgai. Dei egin 79 62 39 tfnora, 12.00etatik 14.00etara edo 17.00etatik 19.00ak bitartean. Mila
- Orbea Nordkapp markako mountain bike bizikleta oso egoera onean salgai. Prezioa: 55.000 pta. Tfnoak: 77 05 00 eta 79 02 11 8.30etatik 12.30etara eta 14.30etatik 18.30etara. Antonio
- Mercedes 409 D furgoneta salgai. Dei egin 79 27 19 tfnora. eguardiko 1.00etik 3.00etara edo 8.00etatik 10.00etara.

## DENETARIK

- Eraikitzeo lurra behar da Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 79 25 86 tfnora.
- Astalehen goizean Donostia joateko, bi neska autoa duen norbaitekin elkartuko lirake. Dei egin 79 13 83 tfnoa. Arrasate.
- New York-etik gure Arrasateko lagunari musu handi bat. Sharryn, Geoff eta Kikin-en partez.
- Bi gazte larunbat goizetan buzoneo edo halakoren bat egiteko prest. Harremanetarako dei egin 79 55 35 tfnora. Arratsaldeko 7etatik aurrera. Mikel.

## ARRASATEN HILDAKOAK

Tomasa Larrañaga Amutxastegi,  
abenduaren 5ean. 90 urte.

Luis Iturbe Urzelai,  
abenduaren 9an. 62 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15



# Zer nahiago?

## Mari Karmen Belinchon, Mkusakolako Herri Eskolako Zuzendaria



- **Neskatilak ala mutikoak?**  
Neskatilak, bai etxean eta baita eskolan ere.
- **Ikasleak ala irakasleak?** Ikasleak nahiago.
- **Klaseko orduak ala errekreoa?**  
Errekrea, atseginagoa izaten da.
- **Kalkuladoraz ala eskuz?** Buruz, kalkuladora badaukat, baina ez zait gustatzen.
- **Ekaina ala iraila?** Ekaina, dudarik ez.
- **Ohiu egin bota ala arrazoiak eman?** Arrazoiak ematea, baina nire izakerarekin askotan zaila izaten da.
- **Prakak ala gonak?** Gonak, askoz ere politagoak dira.
- **Kopiatzeko, txuletak ala ahoz-ahoz?** Ez nuen gehiegi kopiatzen, baina kopiatzen nuenean, ahoz. Oso txuleta gutxi egin ditut.
- **Autoa ala autobusa?** Nahiago autoa, baina autobusa gehiago erabiltzen dut.
- **Lankideak, gizonezkoak ala emakumezkoak?** Dudan esperientziagatik, emakumezkoak.
- **Lotarako, pijama ala kamisoi?** Pijama, askoz ere erosoagoa da.
- **Esnea, osoa ala gaingabetua?** Ez dut esnerik hartzen.
- **Egunkaria ala aldizkaria?** Egunkaria nahiago dut, ez dut aldizkari gehiegi irakurtzen.
- **Liburuak, literaturakoak ala pedagogikoak?** Gezurra badirudi ere, pedagogikoak atsegingarriagoak egiten zaizkit.
- **Zenbakiak ala hizkiak?** Matematikak ematen ditut, baina hizkiak gehiago gustatzen zaizkit.
- **Lotoa ala kinielak?** Ez bata eta ez bestea, ez dut jokatzeko.
- **Taberna ala zinea?** Zinea, gehiegi joaten ez naizen arren.
- **Zuzendari ala irakasle arrunt?** Irakasle arrunt, zuzendaritzan beste irtenbiderik ez dudalako izan nago.

## Zelebrequerixak

**D**omeka gau baten, baso erdi mor-  
dua jo ondoren, abixau da Xerapio  
Eibartik Plazentziaruntz. Bidian ziga-  
rrotxo bat erretzeko tentaziñua etortzen  
jako. Etara zigarrua, pospolua ixotzen  
hasi... eta haize madarikatua! Pospolua  
itxungi. Neri etxostak, pa, adarrak joko.  
Hartzen dau buelta erdi, esku bixekin  
eitten dau haize ezkutua eta pizten dau  
azkenian. Gero, ke galantak etaraziaz,  
aurrera... eta halako baten, aibadios,  
berriro Eibarren. Derrepente Elkano eta  
Magallanes etorri jakozen burura, beti  
direzifño bardifña eruanaz urtendako le-  
kura bueltatzen dala... Baina Xerapion  
hazifña oinddio homologau barik dago.

**A**intziñan bi itxuk txirtxil harrapa-  
tzen ei ziharduen. Han zebitzen  
zuluana zotza sartu eta txirtxila etartzeko  
asmotan.

– Bajatok, bajatok -esaten ei eben.  
eta baita etorri be, baiña tren.  
Maltzagako tunelien ziharduan txirtil  
billa.

**D**ozenatxo bat arrautza konbentu-  
ra...! -frailia hilero hilero fijo ba-  
serriko atian zakuakin. Hasarretu jako  
etxeoandriari. “Hurrenguan entzun bi  
jostak entzutekon bat”.

– Dozenatxo bat arrautza konben-  
turako...

– Eztaukagu, ba. Oilluak mikatu ein  
jaku eta gizonak basuan die garotak.

Juan Martin Elexpuru

**Felipe  
Arrizabalaga**  
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

**PAZI-OLA SA**

Zaldizpe kalea 2,  
Tfnoa 79 29 91  
ARRASATE





M. Oreja eta D. Resusta hil zituzten lekua, 1934.

1

934eko urriko iraultzak porrot egin zuen ordurako. Hilak 5 zituen eta arratsaldea zen. Armadako kamioiak

soldaduz beteta zetozela zabaldu zenean, iraultzaileek Maala kaleko sozialisten Herriko Etxean atxilotuta zeuden Marcelino Oreja, Dagoberto Resusta eta Rikardo Azkoaga, hirurak UCEMeko zuzendariak, atzeko aldetik atera zituzten.

*Belaunaldi Etena* liburuan

kontatzen denez, "frontoi atzekaldetik ortura atera zituzten; baratzez-baratze, Ferixalekurako zubi ondoko paretera ailegatu ziren, gaur Txoko taberna dagoen lekuan. Azkoaga pareta gainera igo eta Martzelino Orejari laguntzera jiratu zen, hura zen lodiarekin, torpe samar bait zebilen gizona. Dagoberto atzetik zetorren. Orduan entzun ziren tiroak. Rikardo Azkoagak, oin batean zauriturik, bidera salto egin, handik ibaira eta uretan gora joanez, Olarte kalera irten zuen "Markiegi" eta "Uriarte Sport" tartean dagoen kantoitxoan, militarren kamioiak paretik igarotzen ari ziren

une-unean. Geldi arazi zituen eta gertatutakoaren berri eman, (...) kamioi batean hartu eta beraiekin eramane zuten. Bergaran utzi zuten, sendagile baten etxe ondoan".

Oihartzun handia izan zuten gero hilketa hauek. Mondragoeko Iraultza Batzordea osatzen zutenek alde egin behar izan zuten, Frantziara gehienek. Goardia Zibilak jende asko atxilotu zuen bazterretan. Geroago Epele erreka inguruan hilda agertu zen Secundino Vitoriari leporatu bazizkioten Oreja eta Resustaren heriotzak, inoiz ez dira garbi gelditu benetako hiltzaileen izenak.



## ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



# ERGUIN ESKOLA PUBLIKOEA

Asmakizuna




Hegar egiten du  
eta ez da hegarkina.  
Plastikozkoa da  
eta ez da globoa.  
Koloretakoa da  
eta ez da parapente.

## GURUTZEGRAMA

3. Maila


- A - Zu bezi zaren herria da.
- 1 - Belarru haundiak dituen alere bat da
- 2 - Makina horrekin berriak entzuten ditugu baina ez ditugu ikusten
- 3 - Katuak jan nahi du.
- 4 - Hamarkagarren hilabetea da.
- 5 - Sagardoa egiteko behar dugu.
- 6 - Gazta egiteko omea ematen du.
- 7 - Buru gainean eramaten da.
- 8 - Arrastan nerka-mutil gutxiok hitz egiten dugu.



3. maila

Txistek

5. maila



**VICTOR RUIZ MELGAR**

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

**Lua**

gozokiak

Erdiko kale 8,

Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE



## Poemak

**K**exka, ardura, aldapa latza  
eta norbaiten beharra.  
Lagun zintudan hori,  
non sartu zara?  
Kantoian irudi bat,  
zu al zara?

Geldirik; mugi, pentsa,  
bidea urra ezinik;  
ezerezari loturik.  
Laguna,  
ni neu nintzen laguna,  
ihesaren morroia,  
zatoz, argitzera iluna.

Laguna, lauso eta urruna;  
bakartasuna, mutu eta isila;  
eta ni,  
bizi naizeno  
hila.

*J.L. Ramos*



**ASEGURO  
ARTEKARIA**  
Zure esanetara gauzkaku!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE



✓ **EUSKAL EGUNKARIAK:** Berrogeitalau urte inguru pasatu behar izan ditugu berriro ere euskal egunkaria izan dezagun esku artean, *Euskaldunon Egunkaria*, eta berandu baino lehen bigarrena ere izango dugu, *Egunero*. Biak Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokan aurkeztu ziren.

Ondorengo lerroetan irakurlea naizen aldetik bie buruz atera ditudan lehen inpresioak azalduko ditut.

*Euskaldunon Egunkariari* dagokionez, ezeren aurretik nire zorionik beroenak egiten dutenei, kaleratu dutelako. Eritziak emateko orduan, indar apur bat falta zaiola esango nuke. Hiru faktorek izan dezakete zerikusirik horrekin. Batetik izenburuetarako aukeratu duten letra mota oso desegokia iruditzen zait, ez du bat ere laguntzen zuzen eta eroso irakurtzen, ertzez josita bait dago. Zerbait aldatzekotan, hori aldatuko nuke. Bestetik, ez dute oraino argazkiak behar bezala erabiltzen jakin, ez dute indarririk. Eta hirugarrenik, maketazioa nahiko laua iruditzen zait, argia denaren, indargea. Informazioari dagokionez, desoreka nabarmena ikusten dut gaien tratamenduan. Badirudi euskaldunoi politika eta kultura baino ez zaizkigula interesatzen. Lehen bi egunetan, bestalde, Terra Lliureko zuzendari bati eskaintzen zioten azaleko lauki horietako bat. Egunkariaren irakurlea *Argia* irakurtzen duen berbera izatea nahi bada, ondo dago, baina hori baina irakurlego zabalagoa irabazi nahi badute, duda egiten dut Pere Bascompte egokiena izango denik horretarako. Bukatzeko, informazio lokalik ez ematea gabezia handia izan daiteke Euskaldunon Egunkariarentzat. Publizitate falta ere oso nabarmena da.

Sorpresa atseginen artean, agenda eta eguraldiaren orriak eta infografikoen ustegabeko maila. Dagoeneko *Egin* eta *Deiakoen* gainetik jarriko nituzke infografikoak.

*Egunero* delakoaz, badakit aurkeztu zutena ezin dela zero aletzat hartu bere osoan, baina bai neurri batean. Hasteko, esan dezadan ez dela nahikoa kolorea erabiliko dela aldarrikatzea, kolorea modu egokian erabili behar da. Aukeran gordinegiak iruditu zitzaizkidan hautatu zituztenak. Egin zuten irudiari berriz, ezin esan infografikoa zenik, ez bait zuen informaziorik ematen. Egindako txostenean argazkiak oso garrantzizkoak direla esan ondoren, azalean eta kontrazalean ez zen bat ere agertzen, eta barruko orrialdeetan bai, handiak eurak, baina postalak baino ez ziren.

Hurrengo aleak askoz informatiboak izango direnez, haietan bai hartu beharko dituzte gauza hauek kontuan izan, zeren proiektu honi aurrekoari baino gehiago eskatuko zaio, baliabideak eta denbora alde dituelako.

Goiz da hala ere, gauza sakonagoak esateko. Inportanteena euskaldunontzat, euskal egunkari bat kioskoetan daukagula dagoeneko eta beste bat bidean.

Joxe Aranzabal

## Gusto baduzu

### ☐ HITZETIK HORTZERA

Joserra Gartziaeren eskutik astebetean bertsolaritza munduan emandako gorabeherak ezagutzeko aukera, burututako saioen grabazioak, elkarrizketak, bertsolaritzari buruzko kontutxoak, eta burutuko diren saioen iragarpenak. Larunbata, gaueko 23.05etan.

### ☐ "FRANTSES TENIEN-TEAREN ANDEREA"

Meryl Streep, Jeremy Irons, eta Hilton Mc Raek protagonizatzen duten pelikula. Sarah, emakume bakartia da, baina Charles ezagutzerakoan bakar-dadea alde batera uzten du. Amodio istorio bat sortuko da bien artean. Ondo edo gaizki bukatuko al da? Erantzuna, asteazkenean gaueko 21.20tik aurrera.

### ☐ SASKIBALOA

Europako talde onenen arteko txapelketari hasiera emango zaio datorren astean, eta talde horien artean Estatuko bat, Bartzelona. Ostegunean kataluniarrek etsai gogorra izango dute aurrean, Salonica-ko Aris. Gehiago nor izango den jakiteko, ostegunean gaueko 20.40tik aurrera, emozioz eta goi mailako saskibaloiaz beteriko minutuak.

## elkarrizketak

elkarrizketak 11-20



## Bideoak

### ELKARRIZKETAK 11-20

HABEk euskaraz ikasten ari direnentzat ateratzen dituzten bideoak dira, hamar elkarrizketaz osatuak. Irineo Ajuria, Iñaki Perurena, Juan Mari Torrealdei, Edurne Enbeita, Maria Jesus Arregi eta beste hainbat elkarrizketatzen dituzte kazetari ezagunek.

## Ostadar irratia

### OSTIRALA

3.30 eta 8.30. *Errota-zahar* (Ipuinak)

4 eta 8.30. *Batutakin* (Musika klasikoa)

### ASTEAZKENA

4 eta 8. *Xiru-Ilru-II* (Haur kantak)

### OSTEGUNA

1 eta 8. *Irratia-gelan* (Gelako grabaketak)

OSTADAR Irratia. 102 FM



**PROGRAMAZIOA**

**17 ASTELEHENA**

- 18.30 Teletestua
- 19.30 Bapirulauke, S. Andres Herri eskolan grabatua.
- 20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 Mondrasport, Belfardo Kortabariak aurkeztua.
- 20.40 Saitsa-maitsan, Juanita Zabalok aurkeztua.
- Berriak (errepikaldia)

**18 ASTEARTEA**

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Bapirulauke (bezperakoa).
- 12.30 Berriak (bezperakoa).
- 12.50 Mondrasport (bezperakoa).
- 13.00 Saitsa-maitsan (bezperakoa).
- 13.10 Bapirulauke (bezperakoa)

**19 ASTEAZKENA**

- 18.30 Teletestua
- 20.20 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 Zenbat buru, hainbat aburu. J.M. Velez de Mendizabalek zuzendua.
- Gaia: Santo Tomasak.
- 21.00 Berriak (errepikaldia)

**20 OSTEAGUNA**

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa).
- 12.20 Zenbat buru, hainbat aburu. (bezperakoa).

**21. OSTIRALA**

- 19.00 Teletestua
- 20.00 Berriak, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 Erretratoa, J.R. Elortzak zuzendua. Gorbidatua: Esteban Etxabe "Muxbar".
- 20.50 Musikantoi, Asier, Patxi eta Mikelek egina.
- Berriak (errepikaldia)

**22 LARUNBATA**

- 12.00 Berriak (bezperakoa).
- 12.20 Erretratoa (bezperakoa).
- 12.50 Musikantoi (bezperakoa)
- 20.00 Santamasak 90, Koldo Rodriguez eta Begoña garairen eskutik, programa berezia. Gorbidatuaketa erreportaiak.



**H**ona hemn *Iku-Mika* taldea. Goitik behera **Agustin Olaizola, Unai Torres, Aitor Mendizabal** eta **Betirtze Ifurriritegi** gazte mondragoetararak. UBI ari dira ikasten Institutuan. Bideo eta ordenadorezale handiak dira eta euren etxeetan lehenengo, programa bereziak grabatzen hasi ziren etxeko bideoekin. Astelehen eta astearteetan ematen den *Bapirulauke* programaren barruan, *Iku-Mika* saioa egiten dute astero, ordenadorei buruz batzuetan, arrainuntzi zein bestelako gai interesgarrien erreportaiak besteetan. Poliki-poliki ATBren tresneria ari dira erabiltzen euren lanetarako.

**D**urangoko Euskal liburu eta Diskoen Azokaren bezperetan, *Zenbat buru hainbat aburu* mahingurua horretaz izan zen. Pili **Ansoategi, Iñazio Mugika Iraola, Juan Martin Elexpuru** eta **Xabier Mendigurenek** saio polita eskaini zigten. Programara deitu zutenek ere sorpresa atsegina izan zuten, izan ere Erein eta Elkar argitaletxeen nobedade asko deitu zutenen artean banatu bait ziren.



**S**anto Tomas egunean, Arrasaten abendua-ren 22an alegia, ATBk programa berezia eskainiko du iluntzeko 8.00etan. Bertan, Begoña Garaik eta Koldo Rodriguezek jaiegunak ematen duenari errepasoa emango diote, gorbidatuak elkarrizketatu, etab. Ordubete luzez, azokan, Zaldibarren eta kalez-kale gertatutako guztiaren berri koloretsua ikusiko duzue Arrasate Telebis-tan. Ez horregatik.

**ESTETIKA ZENTRUA**  
lurrundegia, opariak, jostailuak

**Z a r r a o a**

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

**M MIKEL**

**Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa**

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE





## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Eraginkor egongo zara lanean, primeran joango zaizu beraz arlo hau. Maitasunari dagokionez, ziur-ziurra eta betegarria izango da laguna eta biontzat. Halere, derrepente erabakiak hartzea eta pronto oldarkorrak izatea ebitatu.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Jendaurrean ideia berriak azaldu behar badituzu, izan zaitez zuhurra, hau da, berbak egoki erabiltzen saiatu. Lan arloan eraginkor egongo zara aspaldiko partez. Maitasuna onuragarria izango da bai lagunarentzat bai zuretzat. Ariketa fisikoa egizu.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Ekintza berrietan hasteko irrikan zaude, baina badakizu ahal duzun neurrian bizi behar izango duzula eta ez nahi duzunean. Urrutirako bidaia eta energiak alperrik galtzea ebitatu, aurreraxeago behar beharrezkoak izango bait dituzu.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Ekiozu bizimodu berri horri, oraingoz behintzat, modu praktikoan, hau da, itsutu barik. Ez da oraingoa konpromezu serioegiak hartzeko momentua. Elkarrizketatan ahal duzun gutxien hartu parte; zuhurra izan gaizki ulertuak sor bait daitezke.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Aspaldidanik ametsetan egin duzun amodio harreman hori errealitate bihur daiteke Virgo, ez galdu esperantzarik beraz. Izkutuko gaien inguruko ikasketak onuragarriak izango zaizkizu zure barnea betetzeko. Oreak lortuko duzu arlo guztietan.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Urte hasieran planeatu zuenena orain gauza liteke. Hala bada, arrakasta handia izango duzu. Amodio berriren bat suertatuko zaizu aurki. Lanerako eta aisialdirako denbora ondo banatzea komeni zaizu, desoreka izan bait dezakezu berriz ere.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Lagunik baldin badaukazu ezkontzeko momentu aproposa da oraingoa Gemini, zoragarria izan liteke eta. Lan arloari dagokionez, kreatibitateak ondorio onak emango dizkizu bakarrik eraman duzun gai horretan.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Senitarteko eta lagunetik harremana primerakoa izango da Libra, honez gero ahaztuak izango zenituen baina beharrezkoak izaten dira hauek ere. Benetan maiteminduta sentitzen zara eta bizipoza sentiarazten ditu.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra


Eramango duzun diziplinak kreatibitatea areagotuko dizu datozen egunetan. Lagunak izango dira zure helburu hori finkatzen lagunduko dizuteneak. Egiezu kaso. Laguna eta bion arteko harremana itzaltzen hasi da, jarriozu piperrin piska bat.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Aukera berriren bat suerta liteke lan arloan; amodio kontuei dagokionez ez da erabakiak hartzeko une aproposa. Poltsikoa ondo itxi beharrean izango zara, alperrikako gastuak egiteko joera izango duzulako. Gustoko izango duzu lagunartea.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Inbertsioren bat egin asmotan bazabiltza oraingoa momentu aproposa da, ausar zaitez, aterako diozu etekinik eta. Maitasun arloari dagokionez, oreak piska bat jarri beharrean zaude; umore oneko egotea beharrezkoa izaten da bion nahiak asetzeko.



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Ez daramazu oso ondo etxe barruko harremana eta lagunartera joko duzu, horixe bait da benetan gozatu egiten duzun tokia. Lan arloan aurrera begira onuragarria izango zaizun aukeraren bat sortuko da, hartuizu. Bakardadean egotea ebitatu.



# SANTAMASAK 1990

## Eskaparate lehiaketa

### Sariak:

1. 30.000 pta. eta plaka
2. 25.000 pta.

**Epaimahaia abenduaren 21ean  
kaleetan zehar ibiliko da.**



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa  
metalikoak  
Otzaratzarrak  
Giltzak gordetzeko armairuak  
Erremintak eramateko gurdiak  
Erremintak gordetzeko  
armairuak  
Lan egiteko aulkiak**


## ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritzitatea eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



**Sony HI-FI osagaiak  
Adituentzako bakarrik**



**SONY**®

**BANATZAILE  
OFIZIALA**

*Jose Aranzabal*

**Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16**



**iKER**

**X** **xey**



**SUKALDE-ERAKUSKETA:**

**Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE**